

# BURU GAIXOTASUNA DUTEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO IKERKETA



Ondorioen txostena  
2015 eta 2016 ikerketa



Fedeafes

Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarten Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi de asociaciones de familiares y personas con enfermedad mental

Fedeafesen barne dauden elkarteak



Erakunde laguntzaileak





---

### **Ikerketaren zuzendaritza:**

Fedeafes (Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarten Euskadiko federazioa)



**Fedeafes**

94 406 94 30

Hiru Gurutzeta 14, behea

01400 Laudio (Araba)

[www.fedeafes.org](http://www.fedeafes.org)

### **Koordinatzea eta idaztea:**

Alicia García Santos, berdintasun aholkularia.

2017an argitaratua

2019an inprimatua

### **Lege-gordailua:**

BI-02661-2019



Erabilera ez komertziala (by-nc): Eduki honetatik abiatuz beste lan batzuk sortzeko aukera dago, beti ere erabilera komertzialik ez badute. Jatorrizko txostena ere ezin da erabili helburu komertzialekin.



---

# HITZAURREA

Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarleen Euskadiko Federazioak (FEDEAFES) burututako ikerketa honek buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeriaren errealitatea erakusten digu. Ikerketaren abiapuntua buruko nahasmendua duten eta biolentzia bizi duten emakumeen esperientzia da, baita emakume horiek instituzioetatik jasotzen duten erantzunaren balorazioa egiten duten profesionalen iritzia ere.

Ikerketa honen ondorio da errealitate hori ezagutzera emateko beharrezkoa den ezinbesteko informazio baliagarria, pertsona ugariren parte hartzeari esker lortua: emakumeak; gizarte eremuetako, buru osasuneko, indarkeriaren arretako eta senide elkarreentako profesionalak; eta buruko gaixotasuna duten pertsonak ikerketa honen bitartez indarkeria jasaten duten eta buruko nahasmendua duten emakumeen arretan eta prebentzian instituzioek egin behar dugun lana azpimarratuz.

Ikerketaren arabera, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik biolentzia jasateko arriskua bikoiztu edo lauhoiztu egiten da buruko gaixotasun larria izatean, eta buruko nahasmendu larria duten emakumeen %42 ez dute indarkeria identifikatzen. Egoera horren aurrean, prebentzioa da emakume horien arrisku-faktorea murrizteko bide egokiena.

Ikerketak hainbat eremuetan egiten ditu proposamenak: buru osasun arloan, gizarte zerbitzuetan, genero indarkeriaren arreta zerbitzuetan edo elkarreentan. Dударik gabe, proposamen horiek indarkeria sufritzen duten eta buru gaixotasuna duten emakumeen aldeko erabakiak hartzen lagunduko digute.

Fedeafesi eta federazioko zuzendaritza-batzordeari eskerrak eman nahi dizkiot ikerketa hau proposatu eta bultzatzeagatik, baita errealitate hau ezagutzera eman duten emakume eta profesionaleri ere. Instituzio guztiek gai honen inguruan erabakiak hartzeko orduan mahai gainean izango dugun erreminta izatea espero dut.

**Izaskun Landaida Larizgoitia**

**Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria**

# AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. INTRODUCCIÓN  | 10 |
| <b>1.1. Introducción a la investigación de 2016</b>  | 11 |
| 2. CONCEPTUALIZACIÓN Y MARCO TEÓRICO Y LEGAL   | 13 |
| 3. METODOLOGÍA   | 14 |
| <b>3.1. Grupos de discusión</b>  | 14 |
| <b>3.2. Entrevista de contraste</b>  | 15 |
| <b>3.3. Il parte de la investigación</b>   | 16 |
| 4. INFORME DE RESULTADOS   | 17 |
| <b>4.1. Autopercepción de las propias mujeres con enfermedad mental y percepción de las personas profesionales</b> | 20 |
| 4.1.1. Conceptualización de la violencia   | 22 |
| 4.1.2. Violencia física  | 23 |
| 4.1.3. Violencia psicológica   | 23 |
| 4.1.4. Violencia económica   | 24 |
| 4.1.5. Violencia sexual  | 25 |
| 4.1.6. Consecuencias de la violencia para las víctimas   | 27 |
| 4.1.7. La culpa y la vergüenza que viven las víctimas  | 28 |
| 4.1.8. Percepción sobre la actuación de los diferentes servicios ante la violencia actual                          | 29 |
| 4.1.9. Conocimiento y acceso a los recursos públicos   | 30 |
| <b>4.2. Factores de riesgo y protectores frente a la violencia</b>   | 31 |
| 4.2.1. Momentos de incremento del riesgo   | 33 |
| 4.2.2. Trastornos que provocan un mayor riesgo   | 33 |
| <b>4.3. Mejora en la detección de casos de violencia. Conocimiento de recursos</b>                                 | 34 |
| 4.3.1. Credibilidad que se concede a las mujeres con enfermedad mental   | 40 |
| <b>4.4. Prelación entre violencia y enfermedad mental</b>  | 43 |
| <b>4.5. Atención psicológica a mujeres que han sufrido violencia</b>   | 44 |
| 4.5.1. Trabajo grupal  | 45 |
| <b>4.6. Recursos públicos para la atención a mujeres que han sufrido violencia</b>                                 | 47 |
| <b>4.7. Asociaciones de personas con enfermedad mental y violencia contra las mujeres</b>                          | 56 |
| <b>4.8. Coordinación interinstitucional</b>  | 59 |

|  |    |
|--|----|
| <b>4.9. Prevención</b>   | 61 |
| <b>5. CONCLUSIONES Y RECOMENDACIONES</b>   | 62 |
| <b>5.1. Conclusiones</b>   | 62 |
| 5.1.1. Sobre la violencia contra las mujeres en general  | 62 |
| 5.1.2. Sobre la violencia contra las mujeres con enfermedad mental   | 62 |
| - <i>Datos sobre la violencia en la pareja contra las mujeres con enfermedad mental</i>  | 62 |
| - <i>Causas del incremento de la vulnerabilidad frente a la violencia de las mujeres con enfermedad mental</i>                 | 63 |
| - <i>Factores que disminuyen el riesgo de violencia</i>  | 63 |
| - <i>Vinculaciones entre la violencia y la enfermedad mental grave.</i>  | 63 |
| - <i>Situaciones que incrementan el riesgo de sufrir violencia</i>   | 63 |
| - <i>Barreras que existen para que las mujeres con enfermedad mental salgan de la violencia</i>                                | 64 |
| - <i>Propuestas que pueden ayudar a las mujeres con enfermedad mental a superar una situación de violencia actual o pasada</i> | 64 |
| 5.1.3. Sobre el trabajo que realizan las asociaciones de personas con enfermedad mental respecto a la violencia                | 64 |
| 5.1.4. Sobre el trabajo que realizan los servicios públicos respecto a la violencia contra las mujeres con enfermedad mental   | 64 |
| - <i>Servicios públicos existentes para la atención a situaciones de violencia contra las mujeres</i>                          | 64 |
| - <i>Necesidades detectadas en la identificación de situaciones de violencia contra las mujeres con enfermedad mental</i>      | 65 |
| - <i>Necesidades detectadas en la atención a las mujeres con enfermedad mental</i>   | 65 |
| - <i>Necesidades detectadas en la coordinación interinstitucional</i>  | 65 |
| <b>5.2. Recomendaciones</b>  | 65 |
| 5.2.1. Dirigidas a las asociaciones  | 65 |
| - <i>En el trabajo con las mujeres y los hombres</i>   | 65 |
| - <i>En el trabajo con las instituciones</i>   | 66 |
| 5.2.2. Dirigidas a las instituciones que trabajan con mujeres víctimas de violencia y/o con enfermedad mental                  | 67 |
| - <i>A la Red de Salud mental y a la atención Primaria de salud</i>  | 67 |
| - <i>A los Servicios Sociales</i>  | 69 |
| <b>5.3. Conclusiones y recomendaciones dirigidas a las mujeres con enfermedad mental</b>                                       | 69 |
| - <i>Datos sobre la violencia contra las mujeres</i>   | 69 |
| - <i>Si estás viviendo violencia o la has vivido en el pasado</i>  | 70 |
| <b>6. BIBLIOGRAFÍA</b>   | 71 |
| <b>7. PERSONAS PARTICIPANTES</b>   | 72 |





---

## HASIERAKO OHARRA

---

Ikerketa honen landa-azterketa 2015 eta 2016 urteetan burutu dugu. Hasierako fasean, buru gaixotasuna duten eta indarkeria jasan duten emakumeen esperientzia ezagutzera mugatu genuen ikerketa-eremua, eta zuzeneko esku-hartzean diharduten profesionalen –psikologoak, psikiatrak eta gizarte langile zein hezitzaileak– iritziak ere jaso genituen, indarkeria-egoerek jasotzen duten erantzun instituzionala ezagutzeko.

2016. urtean zehar, berriz, indarkeria-egoerak hautemateko eta horien aurrean esku hartzeko lan-ildoak eta proposamenak identifikatzean oinarritu zen eremu-ikerketa, zerbitzu publikoen eta buru gaixotasuna duten emakumeekin lan egiten duten elkarten jarduketa hobetze aldera.

Ikerketa honekin zinez eskertu nahi dugu irabazi-asmorik gabe kolaboratu duten dozenaka pertsonen ekarpena eta esfortzua. Bereziki, eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakumeen buru-argitasuna eta ausardia nabarmendu nahi ditugu. Azkenik, Cristina Polo Usaola psikiatraren ekarpen baliotsuak aintzat hartu nahi ditugu, aurrekaririk gabeko lana egiten ari baita buru gaixotasun larria duten emakumeek bizi duten indarkeria azaleratzen.

# 1. Sarrera

Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarteek Euskadiko federazioak, FEDEAFESek, 2012.urtean **jarduketa guztietan genero-ikuspegia sartzeko prozesua** hasi zuen. Horretarako, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoerari buruzko diagnostikoa egin zuen, eta horrek, besteak beste, **emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa aintzat hartzeko beharra** agerian utzi zuen. Edozein esparruko ikerketa guztiek nabarmentzen dute buru gaixotasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura. Hala ere, egoera antzemateko eta esku hartzeko zailtasuna daude, bai zerbitzu publikoen aldetik, bai buru gaixotasuna duten pertsonekin lan egiten duten elkarteek aldetik.

Federazioaren barne, diagnostikoak agerian utzi zuen zuzeneko arretan lan egiten dutenak emakumeen aurkako indarkeriaren ezagutzan sakondu behar dutela. Gainera, **egoera antzemateko eta esku hartzeko tresnen eta deribatze-protokoloen falta** ere identifikatu da. Bestalde, azterlanean parte hartu zuten buru gaixotasuna duten emakumeen artean, indarkeriaren inguruko kezka handia hauteman dugu, baita arazoari zuzenki aurre egiteko eskaera ere.

Hori dela eta, 2014. urtean heziketa programa garatu zen genero-indarkeriaren inguruan. Programa horren barruan ekintza hauek gauzatu ziren:

- » Sentsibilizazio tailerra Zaballa kartzelan dagoen emakume-talde batekin; askok buru gaixotasunen bat dute.
- » Hiru prestakuntza-ikastaro, FEDEAFESeko langile teknikoei eta federazioaren barnean dauden hiru elkarteri zuzenduak: Agifes, Asasam eta Asafes.

Horrez gain, Buru gaixotasuna duten emakumeak eta genero-indarkeria izeneko triptikoa argitaratu genuen. Bertan azaltzen ditugu kolektibo horren kalteberatasuna

areagotzen dituzten faktoreak eta indarkeria-egoera antzemateko nahiz esku hartzeko profesionalak dituzten zailtasunak. Indarkeria-kasuak prebenitzeko, identifikatzeko eta esku hartzeko jarraibideak ere aipatzen dira.

Prozesu horretan zehar, buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeriak dituen berezitasunak gutxi ezagutzen direla egiaztatu ahal izan da. Horrela, profesionalentzako prestakuntza-talde guztietan, agerian utzi zen genero-indarkeria eta buru gaixotasuna lantzen dituzten material gutxi daudela, eta ez direla egokitzen kolektiboko emakume gehienek egiazko egoerara. Indarkeria badagoela ohartarazteko aipatzen diren sintoma gehienak buru gaixotasunari lotuta daude. Beraz, egoera horiek antzemateko metodologia egokien diseinuan lan egiteko beharra identifikatu da, baita buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten genero-indarkeriak dituen berezitasunak sakonki ikertzeko premia ere; batez ere, kalteberatasun eta babes faktoreak nabarmenduz.

Gainera, indarkeria-kasu bat antzeman eta geroko esku hartzerako jarraibide zehatzak diseinatzeko beharra ere nabarmendu da, bai **ikuspuntu terapeutiko egokia landuz**, bai deribatze-protokolo koordinatuak garatuz zerbitzu publiko eskudunekin. Azkenik, buru gaixotasuna eta indarkeria-egoerak bizi dituzten emakumeak artatzen dituzten zerbitzu publikoen egokitasun-maila ikertzeko premia ere argi geratu da; behar horien inguruan, administrazio eta zerbitzu profesionalak sentsibilizatzeko prozesuari ekin nahi da eta, aldi berean, behar horiei erantzuna emateko neurriak diseinatu.

Jakin badakigu lan asko egiteko dagoen esparru batean sartzeko ari garela eta, gainera, lan hori aurrera eraman ahal izateko hainbat erakunde publikoren eta hirugarren sektoreko entitateen laguntza beharko dugula. Azken urteotan –mugimendu feministaren borroka dela eta, eta 2004. urtean Genero-indarkeriaren aurkako

*“Indarkeria subjektibotasunaren ordenak bere baitan duen arazoa da, gertukoa eta ez besterena. Modu batean edo bestean, beti ukitzen gaitu; objektu edo subjektu gisa, erasotzaile edo biktima gisa. Indarkeriak zerikusia du gauzatzen duenarekin, subjektiboki bizi dugu, norberaren historiatik”.*

*Luis Bonino*

Lege Integrala sortu zenetik, emakumeen aurkako indarkeriak dakarren arazo sozial handia nabarmen ikusarazi da, baina **dezente gutxiago erreparatu zaio emakume aniztasunari** eta aniztasun horrek sortzen dituen beharrei.

Gure ustez, hiru erronka handi ditugu:

- » Buru gaixotasuna duten pertsonekin lan egiten duten elkarleen aldetik, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa eguneroko praktikan jorratzea eta ezagutzera ematea.
- » Indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten zerbitzu publikoen aldetik, baliabideak buru gaixotasuna duten emakumeen behar espezifikoetara egokitzea, egoera konkretu bakoitzari banan-banako erantzuna emanaz.
- » Buru osasuneko zerbitzuen aldetik, emakumeen bizitzan indarkeria sarri gertatzen den zerbait dela sistematikoki gogoan izatea, are gehiago pertsona horrek buru gaixotasunen bat badu, horrela aukera gehiago baitago egoera identifikatu eta esku hartzeko. Horretarako, genero-ikuspegia barneratu behar da osasun zerbitzuetan.
- » Laugarren erronka alderdi guztiak koordinatzean datza, egoera horiek hobeto hauteman eta esku hartu ahal izateko.

## 1.1. 2016KO IKERKETAREN SARRERA

Ikerketa hau egiten ari nintzen hilabeteetan, elkarrizketa informaletan buru osasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa egiten ari nintzela esaten nuenean, behin baino gehiagotan galdetu zidaten ea emakume horiek eragindako biolentzia aztertzen nuen. Gure gizartean, buru nahasmendua duten pertsonak izaera erasokorra dutenaren aurreiritzia hain barneratua dugu, zaila egiten dela pertsona horiek jasaten duten indarkeria ikusaraztea. Eta euren biktima-izaera agerikoa egitea da emakume horiek behar dutena indarkeriarik gabeko munduan bizitzeko eskubidea nahiz erreparazio eskubidea sozialki onartua ikusteko. Gainera, indarkeriari buruz hitz egiteak buru gaixotasunaren garapenean duen efektu terapeutikoa ez da ahaztu behar, ikerketa honen ondorioetan jasotzen den moduan.

Pixkanaka, gure gizarteak argi ikusten du emakumeak emakume izateagatik jasaten duen indarkeria instituzioen aldetik erantzun sendoagoa jaso beharko lukeen arazo larria dela. Hala ere, buru gaixotasuna duten emakumeak biktima bezala gutxietsiak izaten dira argumentu ezberdinak erabilita: kontatzen duten istorioa sinesgarria ez dela egotzita, euren desoreka psikopatologikoaren eraginez, edo euren jarrerak eragindako ondorioak pairatzen dituztela, besteak beste. Beste batzuetan, buru osasuna lantzen duten profesionalak indarkeria-egoera argira ateratzeak emakumea desorekatu dezakeenaren mitoa sinesten dute, nahiz eta teoria horrek oinarri zientifikorik ez duen.

Batzuetan gertatzen da zenbait eremu profesionaletan, emakumeek indarkeria jasan dutela onartzen denean, gertakari hori buru gaixotasunarekin erlazioa duela eta gizonetzkoie ere neurri berean eragiten diela argudiatzen dela. Dударik gabe, ez da ikerketa honen asmoa buru nahasmendua duten gizonetzkoek jasaten edo jasan izan duten indarkeria gutxiestea. Izan ere, literatura zientifikoak aho batez nabarmentzen du biktima izateko aukera biderkatu egiten dela eritasun mental larria izanez gero. Ikerketa honen helburua da genero-ikuspegitik buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeria sail ezberdinetatik aztertzea, gizartean ezkutuan dagoen errealitate honetan sakontzeko: emakumeek emakume izateagatik indarkeria jasateko

dituzten aukerak; hau da, gizartearen genero-erakuntzaren ondorioz, biolentzia pairatzeko duten arriskua biderkatu egiten da buru nahasmendu larria duten emakumeen kasuan. Zifrak garbiak dira: Buru nahasmendu larria duten lau emakumetik hiruk indarkeria jasan du noizbait familiarean edo/eta bikote harremanetan, Francisco González Aguadok eta psikologian eta psikiatrian beste bost adituk burututako **Buru gaixotasuna duten emakumeen aurkako indarkeria familiarean eta bikotean** (2013)<sup>1</sup> ikerketaren arabera. Hala ere, indarkeria-kasu gehienak ezkutuan geratzen dira emakume horiekin lan egiten duten psikologo eta psikiatra taldeentzat. Errealitate horren aurrean, ikerketa honek helburu praktikoak proposatzen ditu. Alde batetik, gizarte-zerbitzuei, osasun zerbitzuei (bereziki, osasun mentaleko sareei) eta buru nahasmendua duten pertsonen elkartei buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten biolentzia identifikatzeko jarraibideak aztertzea, buru nahasmendua identifikaturik nahiz identifikatu gabe dagoen kasuetan. Bestetik, indarkeria-kasua identifikatua dagoenean, profesionalaren lana orientatzea. Azkenik, buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeriari erantzun egokia emateko zerbitzu publikoek egin beharreko egokitzapenak aurreikustea, emakume horien bizitzetan parte hartzen duten gizarte-faktore eta baldintza pertsonal guztiak kontuan hartuko dituen ikuspuntu interseksionaletik.

Ikerketa honen garapenak iraun dituen urteetan, Fedefesek buru nahasmendua duten emakumei zuzendutako indarkeriaren inguruko hainbat prestakuntza eta sentsibilizazio egitasmo antolatu ditu. Ikastaro horien helburua bikote harremanean ematen diren lehen indarkeria aztarnak antzematea zen, baita biolentzia hori gizarte patriarkalaren egiturari ulertzea ere; emakume otzanek eta gizon menderatzaileek osatutako bikote harremanak sustatzen dituen gizarte patriarkala, alegia. Egitura matxista hori agerian uztea bereziki garrantzitsua da emakume horien kasuan, erasotzailea justifikatzeko joera izaten baitute, baita jasaten duten indarkeriaren errudun direla sentitu ere,

euren gaixotasunak eragindako autoestimua faltagatik. Hori dela eta, 2015 eta 2016 urteetan ondorengo tailerrak burutu dira:

- » Bikote harremanetan ematen den indarkeriari buruzko tailerra buru gaixotasuna duten emakumeekin, Laudioko Asasam elkartearen.
- » Maitasun erromantikoaren mitoari buruzko bi tailer, mito honek bikote harreman desorekatuekin eta indarkeriaren sorrerarekin duen lotura aztertzeko. Buru nahasmendua duten emakumeen parte-hartzearekin burutu ziren tailerrak: Laudioko Asasam eta Gasteizeko Asafes elkarteetan.
- » Maitasun erromantikoaren inguruko tailerra Zaballa espetxeko emakumeekin. Horietako askok buru gaixotasun dute.

Gainera, 2015 urtean **Emakumea eta buru osasuna. Emakumeen aurkako indarkeriari stop** izeneko liburuxka argitaratu zen, baita **Buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako sentsibilizazio, detekzio eta prebentzio erreminta**<sup>2</sup> izeneko dokumentua ere, ikerketa honen lehen zatiaren ondorio nagusiekin.

1 <https://consaludmental.org/publicaciones/Violenciamujeresenfermedadmental.pdf>

2 [http://www.fedefes.org/wp-content/uploads/2016/11/web\\_Fedefes\\_estudio-violencia-genero-mujeres-con-enfermedad-mental\\_conclusiones-y-recomendaciones1.pdf](http://www.fedefes.org/wp-content/uploads/2016/11/web_Fedefes_estudio-violencia-genero-mujeres-con-enfermedad-mental_conclusiones-y-recomendaciones1.pdf)

## 2. Kontzeptualizazioa eta esparru teorikoa eta legala

Emakumeen aurkako indarkeria “**emakume izate hutsagatik pertsona bati eragiten zaion edozein indarkeria mota** da, desberdintasunak bizi dituen gizarte batean, emakumeen eta gizonezkoen arteko botere desberdintasunak eragindako harremanak sortzen dituen gizarte batean”; hala ageri da *EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planean*<sup>3</sup>. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean*<sup>4</sup>, berriz, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko definizioak hala dio: “generoa dela eta, edozein indarkeriazko ekintza, emakumeari kalte sexuala, fisikoa, psikologikoa edota sufrimendua eragiten dionean, baita ekintza horiek gertatzearekin mehatxua egitea, bizitzaren esparru publikoan edo pribatuan hertsatzea eta askatasuna arbitrarioki kentzea ere”.

Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko kontzeptualizazio horiek Nazio Batuak, 1994. urtean, zehaztutako definizioaren elementu nagusiak jasotzen dituzte: “emakumea izateagatik eragiten den indarkeriazko edozein ekintza, emakumeari kalte sexuala, fisikoa, psikologikoa edota sufrimendua eragiten dionean, baita ekintza horiek gertatzearekin mehatxua egitea, bizitzaren esparru publikoan edo pribatuan hertsatzea eta askatasuna arbitrarioki kentzea ere”<sup>5</sup>.

Horietan guztietan irakur daitekeenez, indarkeri mota hori jasateko arrazoi nagusia emakume izatea da soilik.

Kontzeptualizazio horiek *Genero Indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak* biltzen dituen *Lege Organikoak* –edo *Genero Indarkeriaren Legeak*<sup>6</sup>– diona baino areago doazela esan beharra dago. Lege horrek “indarkeria emakume izate hutsagatik eragiten dela onartzen duen arren, erabakitako babes-arau eremua bikotean, elkarrekin bizi ala ez, eragindako indarkeriara mugatzen du. Hori horrela izanik, indarkeria matxista kasu ugari lege horren kanpo geratzen dira nahiz eta oso ohikoak izan emakume askoren bizitzan; besteak beste: sexu-indarkeria bikotearen eremutik kanpo edo genero desberdintasunarekin loturiko familia indarkeria. Gainera, **horrek hedabideetan eta gizartean**

**nahasmena sortu du, uste baitute indarkeria soilik bikoteak eragiten duela.**

Azterlan honetan, buru gaixotasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeria larri oro aztertu dira. Kontuan hartu da, beraz, bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria, erasoak, eta edonolako sexu-abusuak, baita familia barruan sor daitekeen indarkeria ere. Egia da ezin dugula baieztatu senideen arteko indarkeria guztia generoaren eraikuntza sozialaren ondorio denik –eta, hortaz, Nazio Batuen kontzeptualizaziotik kanpo geratuko litzateke-, kasu askotan, jarrera mota horiek emakumeek eta gizonek gizartean duten rolaekin erabateko lotura dute, baita sexuen artean dagoen botere harreman desorekarekin ere. Planteamendu hau koherentea da Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legearekin.

2009. urteko otsailean *Etxearen eta sexuaren eremutan tratu txarrak bizi dituzten emakumeen arreta hobetzeko instituzioen arteko II. akordioa*<sup>7</sup> sinatu zen. Dokumentu horretan instituzioek eta zerbitzu publikoek **sexu-indarkeria nahiz senideen arteko indarkeria** -bikotekideak edo familiako norbaitek eragindakoa- jasan dituzten emakumeen beharrei erantzun egokia eskaini behar dietela nabarmentzen da. Kontzeptualizazio horren arabera, “etxebizitza emakumearen aurkako tratu txarrak egongo dira ondorengo ezaugarriak betetzen badira: emakume heldu edo nerabearen aurkako biolentzia eman bada iraganeko edo egungo familiarterko harremanen batean edo antzeko harreman afektiboan, emakumea menderatzeko eta azpiratzeko helburuarekin, baita harremanean botere edo aginte posizioa mantentzeko asmoarekin ere, eta, ondorioz, emakumearen osasun fisiko edo mentalak kaltea jasan duenean”. Horrez gain, indarkeria sexuala ere sartzen da definizioan, emakumearen onarpenik ez duen edozein izaera sexualeko jokabide bezala definituz.

3 Gobernu kontseiluak onartua 2013ko abenduaren 30ean.

4 4/2005, Lege Organikoa Eusko Legebiltzarra onartutakoa otsailaren 18an [www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/leyes/ley20050004\\_t\\_cas.html](http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/leyes/ley20050004_t_cas.html)

5 <http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/48/104>

6 1/2004 Lege Organikoa, Estatuko Gorte Nagusiek onartutakoa abenduaren 28an.

7 [http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II\\_interinstitucional\\_c.pdf](http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II_interinstitucional_c.pdf)

## 3. Metodologia

Ikerlan honetan metodologia kualitatiboa erabili den arren, hainbat iturritatik lortutako datuak ere ageri dira. Datu horiek, oro har, emakumeen eta, bereziki, buru gaixotasuna duten haien, aurkako indarkeriaren fenomenoaren garrantzia agerian uzteko erabili dira. Metodologia kualitatibo hori, batetik, ikerketan parte hartu duten buru gaixotasuna duten emakumeen esperientzia subjektiboan sakontzeko asmoz landu da. Beraz, emakumeen bizi-esperientziak garrantzi handia izan dute, **azterlanak euren bizipenen baliotasuna eta pisua onartzea baitzuen oinarri, eurak azterlanaren objektu baino subjektu aktibo gisa hartuz**. Helburua bizi-esperientzia ugari jasotzea izan da; horregatik, profil anitzeko emakumez osaturiko taldeak sortu dira, adina, buru gaixotasun tipologia, hondatze kognitiboa, laneratzea eta bizikidetzako unitatearen eraketaren arabekoak. Guztiek euren borondatez parte hartu dute, eta euren nortasuna jakinaraziko ez dela ziurtatu zaie. Euren identifikatzen lagunduko lukeen daturik ere ez da azalduko.

Bestalde, **buru gaixotasuna duten emakumeekin edo indarkeria-egoeraren bat jasan duten emakumeekin egunero lan egiten duten langileen esperientzian sakondu** nahi izan da. Hori guztia dela eta, lana **ikerketateknika kualitatibo** baten bidez egin da, horrek, bizi-esperientziak eta langile profesionalak hobeto ezagutzeko aukera ematen baitu. Horretarako, ikerlan-mota hauetan ohikoak diren bi tresna metodologiko erabili dira: **eztabaida-taldeak eta elkarrizketa sakonak**.

Jarraian erabili diren **tresna metodologikoak** azaltzen ditugu.

### 3.1. EZTABAIDA-TALDEAK

Ikerketaren lehen zatian, guztira eztabaidarako bost talde antolatu dira, segidan zehazten ditugun pertsona profitez osatutakoak:

#### 1. TALDEA: Buru gaixotasuna duten emakumeak

- » Taldea Fedeaefeseko egoitzan egon zen, Laudion (Hiru

Gurutzeta 14, behea esk. Arza Poligonoa), 2015eko irailaren 14an, astelehena, 20.00etatik 13.00era.

- » Arabako eta Bizkaiko Fedeaefeseko elkartearen baliabide anitzen bidez, arreta jaso zuten zazpi emakumek parte hartu zuten. Partaideek 34 eta 53 urte bitarteko adina zuten. Horietatik batek bikotea du egun eta gehienek iraganean izan zuten. Bost tipologia ezberdineko buru gaixotasunak zituzten (eskizofrenia paranoikoa, eskizofrenia, nahasmendu eskizotipikoa, konbertsio-nahasmendua eta alkoholismoa). Lauk narriadura kognitiboa dute eta hiruk ez. Bost emakumek euren jatorrizko familiarekin bizi dira, bat bakarrik bizi da eta beste bat laguntzapisu batean. Hala ere, iraganean bikotearekin bizi izan diren batzuk ere badira. Gaur egun, guztietatik batek bakarrik du lana, nahiz eta hiruk iraganean izan duten.

#### 2. TALDEA: Zaballa kartzelako emakume presoak; batzuek buru gaixotasunen bat dute

- » Taldea Zaballako kartzelan egon zen, irailaren 25ean.
- » 11 emakumek parte hartu zuten, 20 eta 53 urte bitarteko adinarekin, eta batzuek buru gaixotasuna zuten. Guztiak noizbait bikotearekin bizi izan dira. Gehienek ikasketa maila baxua da. Taldean hiru emakume etorkin eta bi ijitok parte hartu zuten.

#### 3. TALDEA: Langileak eta gizarte-hezitzaileak, buru gaixotasuna duten pertsonen elkarteetan, indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten zerbitzu publikoetan edo buru osasuneko zerbitzuetan lan egiten dutenak

- » Taldea Boluntan izan zen, Bilbon (Ronda, z/g), 2015eko irailaren 28an, astelehena, 10.00etatik 12.00tara.
- » Zazpi profesionalek parte hartu zuten, indarkeria jasan duten eta buru gaixotasuna duten emakumeekin batera. Talde horretatik bost gizarte-langileak ziren eta bi zuzeneko esku hartzea lantzen duten psikologoak,

bat emakumea eta bestea gizona. Profilak hauexek dira:

- Paula Castro, indarkeria jasan duten emakumeei zuzendutako harrera-baliabide publikoko gizarte-langilea.
- Ainara Uribarri, indarkeria jasan duten emakumeei zuzendutako harrera-baliabide publikoko hezitzaile-langilea, Bizkaiko Foru Aldundikoa.
- Estíbaliz Villar, Avifeseko gizarte-langilea.
- Gurutze Villanueva, Asasameko gizarte-langilea.
- Marian Larrinaga, Osakidetzako Buru Osasuneko Sareko gizarte-langilea.
- Haizea de la Llosa, Zaballa espetxeko psikologoa, buru gaixotasuna jasan duten emakumeekin lan egiten duena, askok indarkeria bizi izan dutenak.
- Jesús Guerrero, Zaballa espetxeko psikologoa, indarkeria eragitea leporatu dieten gizon presoak hezteko lanetan dabilena.

#### **4. TALDEA: Psikologoak edo psikiatrak, buru gaixotasuna duten pertsonen elkarteetan, indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten zerbitzu publikoetan edo buru osasuneko zerbitzuetan lan egiten dutenak**

- » Taldea Agifeseko Benta Berriko egoitzan izan zen, Donostian (Bertsolari Salbador 4-6, behea), 2015eko urriaren 13an, asteartea, 10.00etatik 12,15era.
- » Zortzi profesionalek parte hartu zuten, horietatik zazpi psikologoak eta bat psikiatra. Profilak hauexek dira:
  - Haizea de la Llosa, Fedaeafeseko psikologoa.
  - Graciela Rodríguez, Avifeseko psikologoa.
  - Yolanda Iglesias, Agifeseko psikologoa.
  - Justine Gestoso, Asafeseko psikologoa.
  - Elena Etxebarria, Asasameko psikologoa.
  - Maitane Ibernía, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzuko psikologoa.
  - Irene Zubizarreta, Zutituko psikologoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundietarako genero eta familia indarkeria jasaten duten emakumeei

bideratutako arreta psikologikorako programak garatzen dituen enpresa.

- María Silva, Osakidetzako Buru Osasuneko Sareko psikiatra.

#### **5. TALDEA: Agintzari kooperatibako gizarte-hezitzaileak eta gizarte-langileak. Kooperatiba indarkeria jasan duten emakumeei zuzenduriko harrera-baliabide publikoak artatzen ditu.**

- » Taldea Agintzariko egoitzan izan zen, Bilbon (Madariaga Ibilbidea 1, 4º), 2015eko urriaren 23an, ostirala, 9.00etatik 10.00etara.
- » Harrera-baliabideak kudeatzen dituzten hiru profesionalek parte hartu zuten –talde osoa, alegia:
  - Oihane Cabello.
  - Lourdes Moruga.
  - Iratxe Amantegi.

### **3.2. KONTRASTE-ELKARRIZKETA**

**Margarita Sáenz Herrero psikiatrari** ikerketaren lehenengo zatiko **kontraste-elkarrizketa** egin zaio. Genero-ikuspuntutik buru osasunean espezialista da eta, gaur egun, Gurutzetako Ospitalean lan egiten du psikiatria unitatean. Ikerketaren atal horretatik ateratako ondorioak berretsi eta eztabaidatu ahal izateko egituratu zen elkarrizketa. Ondorio guztiak berretsi ziren.

### **3.3. IKERKETAREN II. ZATIA**

2016an burututako ikerketan, lehenengo zatiko erreminta metodologikoak erabili dira. Hau da, eztabaida taldeak eta adituekin elkarrizketa sakonak.

#### **EZTABAIDA TALDEAK: Hainbat zerbitzu publikoko arduradunekin eta indarkeria-teknikariekin eztabaida taldea osatu zen.**

- » Taldea Boluntan, Bilbon (Ronda, z/g), bildu zen 2016ko irailaren 23an, ostiralean, 10:00etatik 12:15era.
- » 11 profesionalek hartu zuten parte, Fedaeafeseko gerente María José Canoz gain.

» Ikerketaren koordinatzaile Alicia García Santosek dinamizatu zuen saioa.

» Parte-hartzaileak ondorengoak izan ziren:

- Emakundeko Leyre Sologuren.
- Bilboko Udaleko Berdintasun saileko Amaia Domingo.
- Bilboko Udaleko Berdintasun saileko Irati Fernández.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Familia Esku-hartze zerbitzuko Lola Mechaca.
- Osakidetzako Leonor Aurrekoetxea.
- Donostiako Udaleko Berdintasun saileko Ana Txurruka.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ataleko Aurora Iturrioz.
- Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako zerbitzuburu Patxi Leturia.
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Pilar Sanz.
- Laudioko Udaleko Berdintasun eta Gazteria saileko M<sup>a</sup> José Ikaran.
- Eusko Jaurlaritzako genero-indarkeria jasaten duten emakumeei zuzendutako zerbitzuko Idoia Ebro.

buru Cristina Polo Usaola psikiatrari. Elkarrizketa Hortalezako Buru Osasun zentroan egin zen, Ramón y Cajal Ospitalean, Mar de Kara kalearen 13an (Madrid), azaroaren 21ean, 14:00etatik 15:10era. Cristina Polo buru gaixotasun larria duten emakumeen aurkako indarkerian Estatu mailan dagoen aditu handiena denez, txosten honen ondorio nagusiak egiaztatzeko balio izan zuen berekin mantendutako elkarrizketak.

- Osakidetzako Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariorde Maite Paino Ortuzar. Osakidetzako genero-indarkeriako taldeko partaidea. Elkarrizketa Osakidetzako zentroan burutu zen, Araba kalearen 45ean (Gasteiz), abenduaren 13an, 9:10etik 10:50era.

### **ELKARRIZKETA SAKONAK: Ondorengo lau profesionaleri lau elkarrizketa sakon egin dizkiegu:**

- Fedeafeseko psikologo Haizea de la Llosa. Elkarrizketa Fedeafeseko egoitzan egin zen, Tres Cruces kalearen 14an (Laudio. Araba), urriaren 14an, 10:00etatik 11:15era.
- Bilboko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen gizarte-langile Itziar Azpeitia. Elkarrizketa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitzan egin zen, Santutxu-Boluetan, Circo Amateur Del Club Deportivo kalearen 2an (Bilbo), urriaren 19an, 13:00etatik 14:30era.
- Madrilgo Hortalezako Buru Osasun zerbitzuko



## 4. Emaitzen txostena

**Emakumeen bizitzan indarkeria oso ohikoa den gertakizuna da**, hedabideetan eta gizartean, maiz, salbuespenak edo kasu isolatuak bailiran ezagutzera ematen dituzten arren. Horrela, Europar Batasunean<sup>8</sup> indarkeriaren inguruan egindako lehen makro-galdeketeraren arabera, 2014an argitaratua, **hirutik emakume batek indarkeria fisikoa edo sexuala jasan du**. Datuak estrapolatuz gero, Europako 62 milioi emakumez ari gara. Azterlan honetan, 42.000 emakumek parte hartu dute, eta agerian uzten da **Europako %43k bikotean indarkeria psikologikoa jasan duela**. Estatuan, emakumeen %24,2k edozein pertsonak eragindako nolabaiteko indarkeria sexuala edo psikologia jasan du noizbait<sup>9</sup>.

Zentzu berean, 2015eko udaran argitaratu zuten Nazio Batuen txosten baten arabera, emakumeen aurkako indarkeria munduko heriotza-arrazo nagusia da 15 eta 44 urte bitarteko emakumeen artean; minbiziak, trafikoak edo gudak eragin ditzaketenak baino gehiago. Beste datu esanguratsu bat: Intermón Oxfam<sup>10</sup> erakundeak dioenez, 10 emakumetik zazpi indarkeri psikologikoa edo sexuala biziko du bere bizitzan zehar. **Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) emakumeen aurkako indarkeriaren larritasunak, hedapenak eta ondorioek eragindakoa ikusita, 2005ean, osasun publikoko arazotzat hartu zuen.**

Estatuko, autonomietako nahiz nazioarteko erakundeek, Nazio Batuek esaterako, **bizitzaren alor ezberdinetan emakumek bizi duten desberdintasun-egoera estrukturala dela emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoa**. Egoera hori, sexuaren arabera, gizartean eta familian erabakitako rol eta ardura banaketan oinarritzen da; eta emakumea gizonarekiko menpeko egoera batean dago. Indarkeria desberdintasuna azaleratzen duen adierazpena izateaz gain, ziurrenik adierazpen larriena, gizarteak erabiltzen duen kontrol-tresna da desberdintasun hori mantentzeko eta iraunarazteko<sup>11</sup>.

Hori dela eta, azterlan honen abiapuntua da **emakumeen aurkako indarkeria ez dela fenomeno isolatua ezta salbuespenezkoa ere**; agerian utzi nahi da **izaera estrukturala duela eta emakumeen bizitzan gertakizun ohikoa** dela. Kontuan izan behar da, edozein emakumek bizi dezakeela indarkeria egoeraren bat bere bizitzako uneraren batean.

Buru gaixotasuna duten emakumeez ari bagara, ordea, emakumeek orokorrean indarkeria egoeraren bat jasateko duten arriskua areagotu egiten da. Fedeafesek landu duen **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurrean egoeraren diagnostikoa** aipatzen diren arrazoiaren artean, beste pertsonetikiko menpekotasun handiagoa, egoerari aurre egiteko aukera gutxiago edo harreman desorekatuak izateko aukera gehiago dituztela nabarmentzen dira. Ikerlan horretan, indarkeria jasaten duten emakumeek egoeratik ateratzeko, oztopo izan daitezkeen faktore estrukturalak badirela azaltzen da: biktimaren istorioari ematen zaion sinesgarritasun eskasa edo zerbitzuak eta informazioa eskuratzeko zailtasun handiagoa izatea.

Indarkeriaren areagotzea eragiten dituzten faktoreak ugariak izan daitezke, baina ikerlan guztien arabera, indarkeria jasateko arriskua areagotu egiten da buru gaixotasuna edota beste edozein desgaitasun izatean. Horrela, emakumearen aurkako indarkeriari buruzko Estatuan egin den makro-galdeketa<sup>12</sup>, %33tik gorako desgaitasun-ziurtagiria duten emakumeen artean, %23,3ak bikoteak eragindako indarkeria fisikoa edo sexuala eta beldurra jasan ditu. Ehuneko %15,1ekoa da desgaitasun gabeko emakumeei buruz ari garenean. Buru gaixotasuna duten emakumeek bizi duten indarkeriaren nagusitasunaz hitz egitean, ikasketa eskasia nabarmendu beharra dago, bai Estatuan bai Europan. Hala ere, Amerikako Estatu Batuetan indarkeria fisikoari eta sexualari buruzko azterlan kuantitatibo ugari dago eta, buru nahasmena duten emakumeen

8 [http://www.huffingtonpost.es/2014/03/05/violencia-machista\\_n\\_4901395.html?utm\\_hp\\_ref=spain&ncid=tweetInkushpimg00000067](http://www.huffingtonpost.es/2014/03/05/violencia-machista_n_4901395.html?utm_hp_ref=spain&ncid=tweetInkushpimg00000067)

9 Macroencuesta de violencia contra la mujer de 2015: [http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE\\_MACROENCUESTA\\_VIOLENCIA\\_CONTRA\\_LA\\_MUJER\\_2015\\_05-04-15.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE_MACROENCUESTA_VIOLENCIA_CONTRA_LA_MUJER_2015_05-04-15.pdf)

10 <http://www.elmundo.es/solidaridad/2014/10/15/543ed61c268e3edf648b456b.html>

11 Etxearen eta sexuaren eremutan tratatu txarrak bizi dituzten emakumeen arreta hobetzeko instituzioen arteko II. akordioa (2009). [http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II\\_interinstitucional\\_c.pdf](http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II_interinstitucional_c.pdf)

12 Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. <http://www.msssi.gob.es/gabinetePrensa/notaPrensa/pdf/30.03300315160154508.pdf>

kasuan, ondorioztatu dutenez, bikotekideak edo bikote ohiak eragindako indarkeria mota horiek jasan dituzten emakumeen proportzioa oso handia da. Azterlanen arabera, ikertutako buru gaixotasuna duten emakumeen artean, **%32,3 eta %68 bitartean indarkeria fisikoa eta sexuala jasan dute bikotean**. Hala dio Juan Carlos González Casesek *Buru nahasmendu larria duten emakumeen aurkako indarkeria bikotean (2011)*<sup>13</sup> izena duen bere doktore-tesian. Ikerlanak ere ezagutzera eman du **indarkeriak ekar ditzakeen ondorioak oso larriak izan daitezkeela buru nahasmendua duten emakumeentzat, eta ez dela arazoa nahikoa aintzat hartzen**.

Familiarteko indarkeriari dagokionez, aipatutako tesiak Estatu Batuetan egindako 21 ikerlanetan azaltzen diren datuak erakusten ditu. Esaterako, **nahasmendu psikiatrikoak dituzten ospitaleratutako emakumeen %34 eta %92 bitartean indarkeria fisikoa eta sexuala jasan dute noizbait**. Anbulatorioko tratamendua jasotzen duten emakumeen artean, berriz, proportzioa %15 eta %90 bitartekoa zen. Bestalde, gizonetako kontuan hartzen dituzten ikerlanetan, indarkeriaren nagusitasunak behera egiten du.

Estatuan, Francisco González Aguadok eta psikologian eta psikiatريان beste bost adituk burututako *Buru gaixotasuna duten emakumeen aurkako indarkeria familiarean eta bikotean (2013)*<sup>14</sup> ikerketaren arabera, lau emakumetik hiruk jasan ditu tratu txarrak bikote harremanean edo familiarean (ikerketan parte hartu duten emakumeen %74,1). Ikerketa kuantitatibo hori San Fernando de Henareseko eta Alcalá de Henareseko errehabilitazio psikosozialerako zentroetara joaten diren buru gaixotasuna duten emakumeekin egin zen. Hala ere, zifra horiek ez dute emakume horiek jasan duten indarkeria guztia islatzen. Izan ere, helduaroan jasandako biolentzia soilik hartzen du kontuan lanak, haurtzaroan edo nerabezaroan pairatutakoa alde batera utziz. Gainera, familiarean bizitako bortxakeria bakarrik aztertzen du, bikotekidearengandik jasotakoa barne. Emakumeak ezagunak edo ezezagunak dituen beste pertsonengandik jasandako biolentzia kontuan hartzen ez denez, emakume biktimen kopurua handiagoa dela

ondoriozta genezake.

Ikerketarako elkarrizketatuak izan ziren emakumeen %40 baino gehiagok jasan zuen indarkeria azken urtean, eta portzentaje hori %52ra iristen da senideekin bizi ez direnak kontuan hartzen ez baditugu. Datu horiek ikusita, esan genezake **buru gaixotasun larria duten bi emakumetik batek etxean tratu txarrak jasotzen dituela**, gaur egun edo duela gutxi.

Ikerketak bikotekideak eragindako biolentzia bereizita aztertzen du eta bikotean egon diren emakumeen %80 tratu txarren biktima izan direla ondorioztatzen du. Eta horien artean, %42 jasaten ari da indarkeria gaur egun, edo azken 12 hilabeteetan sufritu du. Zifra horiek emakume guztiak eginiko antzeko azterketa bateko datuekin alderatzen ditu ikerketaren egileak: “buru osasun arazo larria duten emakumeek bikotekidearengandik jasaten duten indarkeriaren zifrak nabarmen altuagoak dira gainontzeko emakumeen datuekin alderatuta”. Izan ere, ikerketa orokorrak identifikatu zuenez, azken urtean emakumeen %10,1k bikotekideak eragindako biolentzia jasan zuen, eta buru nahasmendu larria duten emakumeen artean %42koa da zifra hori. Buru gaixotasuna izatean indarkeria jasateko aukera laukoiztu egiten da, alegia.

Senideengandik jasandako biolentziaren kasuan gertatzen den moduan, bikote harremanean ere indarkeria psikologikoa da ohikoena; fisikoa ondoren eta sexuala azkenik. Hala ere, nabarmentzekoak dira bikotean jasandako indarkeria fisikoari eta sexualari buruzko datuak: ikerketan parte hartu duten emakumeen %52,6k indarkeria fisikoa jasan du bizitzako momenturen batean eta %42k biolentzia sexuala. Ikerketa hau bereziki interesgarria da erabilitako metodologiak indarkeria-egoerak neurtzea ahalbidetzen duelako nahiz eta biktimek biolentziarik ez hauteman. Hau da, eremu-ikerketan ekintza objektiboez galdetu dugu, eta ez horien balorazioaz.

Bestalde, González Casesen tesia ikerlan kuantitatiboa izan zen, eta buru gaixotasun larria duten 142 emakume parte hartu zuten, bikotea zutenek edo izandakoek izan

13 [http://dspace.uah.es/dspace/bitstream/handle/10017/15082/Violencia\\_pareja\\_mujer\\_trastorno\\_mental\\_grave\\_Juan\\_C\\_Gonzalez\\_Cases\\_2011.pdf?sequence=1&isAllowed=y](http://dspace.uah.es/dspace/bitstream/handle/10017/15082/Violencia_pareja_mujer_trastorno_mental_grave_Juan_C_Gonzalez_Cases_2011.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

14 <https://consaludmental.org/publicaciones/Violenciamujeresenfermedadmental.pdf>

behar zuten. Partaide guztietatik, **%79,6k noizbait indarkeria psikologikoa, fisikoa edo sexuala jasan dutela ondorioztatu du**, González Agudoren ikerketak ateratzen dituen ia ondorio berberak. Indarkeria fisikoa edo/eta sexuala jasan dutenen kopurua ere oso altua da, %59,1era iristen da<sup>15</sup>. Ikerketan ia hirutik bi kasutan egiaztatzen da hainbat indarkeria mota aldi berean gertatzea ohikoa dela. Profesionalekin egindako eztabaida-taldeetan argi geratu zen indarkeria psikologikoa, esaterako, beste indarkeria mota batzuekin batera gertatu ohi dela:



- *Nik esango nizuke gure lan arloan indarkeria mota guztiak daudela, kasu guztietan, buru gaixotasuna izan ala ez izan.*

#### **Harrera-baliabide publiko bateko hezitzailea**

González Casesen azterlanaren datu horiek tratu txarren irizpide objektiboetan oinarritzen dira, nahiz eta hirutik biktima batek<sup>16</sup> ez duen uste tratu txarrak jasan dituenik. Ikerketa guztietan agerian uzten da emakumeek jasan duten benetako indarkeriaren eta antzematen dutenaren arteko ezberdintasuna –buru gaixotasuna izan ala ez izan-. Horregatik, **emakumeen ahalduzko beharra ezinbestekoa dela ondorioztatzen da, bikotean jokabide onartezinak diren jarrerak antzemateko gai izateko**. Jokabide horien artean, kontrola, isolamendu soziala, dirua erabiltzeko debekua edota sexu-harremanak izatera behartzea. Duela urte batzuk sexu-indarkeria identifikatzen bereziki zaila izan zitekeen emakume askorentzat, uste baitzen gizonezkoek eskubide osoa zutela, nahi zutenean, euren bikoteen gorputza erabiltzeko. Hala erakusten dute **ezkontzako betebeharra** gisako kontzeptu tradizionalak; eta baita justiziak zuen jarrerak ere, ezkontzan gertatutako abusuak eta bortxaketak zigorgarriak ez zirela ziotenean.

González Casesek ikerlanean aipatzen duenez, **parte hartu dutenen %30,3k bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria jasan dute azken urtean**, nahiz eta %41,9k ez duen tratu txar gisa identifikatu. Kopuru hori Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko III. makro-galdeketa<sup>17</sup> agertu zenarekin alderatuz gero, “ondoriozta liteke buru gaixotasun larria duten emakumeen kasuan bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria hirukoiztu egiten dela, biztanleria orokorreko emakumeekin alderatuta”<sup>18</sup>. Horretaz gain, datu hauek biztanleria orokorraren lehen mailako arretarako osasun zentroko datuekin parekatzen baditugu, González Casesek dio azken urtean bikotekidearengandik jasandako indarkeria bikoizta dela buru gaixotasun larria duten emakumeen kasuan, eta bizitzan zehar jasaten duten indarkeriaren zifra, berriz, 2,6 aldiz handiagoa da. Beraz, ikerlan hauek kontuan hartuz, esan daiteke **bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria jasateko arriskua bikoiztu edo hirukoiztu egiten dela emakumeak buru gaixotasun larria badu**. Zifra horiek Francisco González Agudok 2013an burututako ikerketaren emaitzekin erlaziozaturik, efektu biderkatzaile hori laukoiztu egin liteke.

Bestalde, González Casesen ikerketan parte hartu zuten %57,8k ez zuen neurrik hartu sufritutako tratu txarren aurrean, eta, kasuen erdian, euren erreferentziazko profesionalak, osasun mentaleko sarearen baitan, ez zuen egoera horren berri. Zentzu berean, Cristina Polo Usaola psikiatrak elkarrizketan adierazi zuenez, orokorrean osasun zerbitzuan gutxitan hautematen dira indarkeria-kasuak, emakumeari gai horri buruz galdetuz gero, askotan deseroso eta derrigortua senti daitekeenaren ustea dagoelako. Horrela, Madrilgo Erkidegoan burutzen ari den ikerketa batek frogatu duenez, emakumeen %95ri ez zaio inoiz galdetu osasun zerbitzuetan nolakoa den bere bikote harremana edo indarkeria jasaten duen jakiteko egin beharreko antzerako galderak. Ikerketa horren arabera, emakumeen %98k gomendagarria ikusten du osasun arloan lan egiten duten profesionalak indarkeriari buruz galdetzea. Hortaz, iritzi hori profesionalak helarazi behar zaie, emakumearen intimitatean sartzeko beldur horri aurre egiteko.

15 González Cases, 2011, 154. or.

16 Noizbait bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria jasan duten emakumeak.

17 Instituto de la Mujer (2006). González Cases bere ikerlanaren datuak 2006ko Makrogaldeketaekin alderatzen ditu, Estatuan lau urtero egiten den ikerketa. <https://www.usc.es/export/sites/default/gi/servizos/oix/descargas/IIImacroencuesta.2006.IM.pdf>

18 González Cases (2011), 176. or.

Hain zuzen ere, eztabaida-taldeetan egiaztatu ahal izan da, bizitakoa kontatzeko aukera ugari izan arren, emakume askok ez diotela inori ezer esaten, ezta psikiatrari ere:



- *Nik ez diot hau inoiz inori kontatu, orain esaten ari naiz indarra sentitzen dudalako*
- *Egoera horretan ezin nuen inorekin partekatu, ez? Niretzat gorde eta aurrera egin nuen.*

Beste partaide batzuen kasuan, bizitako erasoak psikiatrari kontatzeko denbora asko igaro behar izan zuten. Arreta psikologikoa eta psikiatrikoa urte luzez jaso eta gero:



- *Psikiatrak galdetu zidan: Nolatan ez duzu kontatu orain arte, hainbeste denbora pasa eta gero?”.*

Gozález Casesen ikerlanean, Osasun Mentaleko sareak identifikatutako kasuetan, gehienak ustezko indarkeria fisikoa eta psikologikoa ziren; sexu-indarkeria kasuak, berriz, ez zituzten antzeman. Hortaz, **buru gaixotasuna duten emakumeek jasandako indarkeriaren fenomeno larriak zerikusi zuzena du, paradoxikoki, ikusezintasun sozialarekin. Egoera hori European ikasketa faltan eta agenda politikoetan bizi duten erabateko bazterketan islatzen da.**

Hurrenez hurren, ikerketaren emaitza nagusiak atalka azalduko ditugu. Lanaren ondorioek buru gaixotasuna duten emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa duen pisuari eta transzendentziari buruz eragile sozialak sensibilizatzeko balio izatea espero dugu; eta, horrekin batera, egoera horiek hautemateko eta jorrazteko egitasmoak garatzeko aukera bultzatzea.

## 4.1. BURU GAIXOTASUNA DUTEN EMAKUMEEN ETA PROFESIONALEEN PERTZEPZIOA

Metodologia zehaztu dugunean, aipatu dugu buru gaixotasuna duten emakumeek indarkeriaz duten pertzepzioa dela azterlanaren oinarri nagusia. Eztabaida-taldeetan, **bizipen ugari kontatu dira jasandako indarkeriaz, bai bikotean bai familiartean bai sexuaren alorrean.** Parte hartu zuten ia guztiak partekatu zuten bizitzan zehar jasandako indarkeria gertaeraren bat. Kontakizun horiek ondorio estatistikoak ateratzeko aukerarik ematen ez digun arren, buru gaixotasuna duten emakumeen bizitzan indarkeria ohiko gertaera dela egiaztatzeke balio izan digu.

Partaide batek bizitako indarkeria oso era larrian hautematen zuen; ondorioz, behar duena baino medikazio gehiago hartzen duela aitortu zuen:



- *Oso kaltetuta utzi ninduen, eta atzo kutxatilategitik pilula guztiak hartu nituen lur jota nengoelako. Lur jota.*
- *Eta aste osorako zenituen pilula guztiak hartu zenituen?*
- *Egunerako zirenak, egunerako zirenak...*
- *Eta ze asmorekin?*
- *Ez dakit, ez dakit, baina sarritan egiten dut.*

Ikerketa honen baitan, antolatutako eztabaida-taldetan parte hartu dutenen indarkeriaren autopertzepzioa altua den arren, gai honi buruzko ikerlanetan alde handia dago **jasandako indarkeriaren eta hautematen den indarkeriaren artean, bai biztanleria orokorreko emakumeen artean, bai buru gaixotasun larria duten emakumeen artean.** Alde horren arrazoia argia da, indarkeriaz hitz egiteko eztabaida-taldeetan parte-hartzeak, era boluntarioan, problematikaren

kontzientziazio handia eskatzen du. Gainera, talde horien dinamika berari esker, normalean kontaktzen ez diren bizipenak partekatzen dira konfiantzazko giroan. Horrek partaideei bizitzako egoerak identifikatzen laguntzen die, kideen kontakizunen bidez.

Oro har, **objektiboki bikotekideak eragindako tratu txarrak jasaten ari diren emakume asko ez dira egoeraz jabetzen**; hori, zalantzarik gabe, gizarte eremu anitzetan bikotekideak eragindako indarkeria-jarrera ugari normalizat hartzen direlako da. Cristina Polo Usaola psikiatraren iritziz, tratu txarren susmoa badago baina emakumeak hitzez onartzen ez badu edo ukatu egiten badu, profesionalak etxean bizi diren gainontzeko pertsonen egoeraz galdetzeko estrategia gara dezake emakumearen bizitzan zentratu beharrean:

“

- *Batzuetan, indarkeria dagoenaren susmoa dugu, baina emakumeak ukatu egiten du galdetzen diogunean. Kasu horretan gaiarekin gehiegi ez tematzea gomendatuko nuke. Izan ere, emakumea gaizki senti daiteke eta kontsultara berriro ez bueltatu. Errazagoa izan daiteke emakumeak jasaten duen biolentzia hori onartzea bere etxeko beste pertsonaren baten egoeraz galdetzen badiogu, seme-alaben egoeraz kasu. Galdera hauen bitartez adibidez: “Elkarbizitza ona dela esaten duzu. Zure seme-alabek etxean egoera zailen bat bizitzen ari direla uste al duzu?” Momentu askotan errazagoa egiten zaio emakumeari indarkeria identifikatzea bere seme-alaben kontaktetaren bitartez.*

Egoeraz ohartzeko zailtasuna ohikoagoa da orainean gertatzen ari diren indarkeria-kasuetan, iraganean jazotakoekin alderatuz. Desoreka horretan eragin garbia dute menpekotasun emozional handiak eta biktimak bizi izan duen nortasun-suntsipen sistematikoak. Prozesu horiek erasotzailearen jokabidea barkatzera eramaten dute biktima, indarkeriaren adiskidetze zikloaren baitan, bereziki. Eztabaida-taldeetan hainbat partaidek azaldu zuten indarkeria egoeraz jabetzeko oztopoa erasotzailearekin zuten harreman afektiboa zela:

“

- *Ni ziur nengoen berak maite ninduela eta zuganako duten ustezko maitasun horren alde edozer gauza egiteko gai zarela pentsatzen duzu, ez?”*

González Casesen ikerlanean<sup>19</sup>, une hartan indarkeria jasaten ari ziren buru gaixotasun larria duten emakumeen artean, %41,9k ez zuen egoera identifikatuta. Horrek agerian uzten du **prebentzioan eta jokabide mota horien hautemate goiztiarrean sistematikoki lan egiteko beharra**, gero eta beranduago jabetu orduan eta zailagoa da egoerarekin amaitzea.

#### 4.1.1. Indarkeriaren kontzeptualizazioa

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten buru gaixotasuna duten emakumeek indarkeriaren kontzeptualizazio zabala egiten dute:

“

- *Indarkeria emakumearen duintasuna ez errespetatzea da.*

Eztabaida bizitzan bizitako egoera ezberdinak, naturaltasunez, adierazteko bide izan nahi zuen, dinamizatzaileek tipologiarik aipatu gabe eta definiziorik eskaini gabe. Helburua, batetik, indarkerian sakontzea zen; eta bestetik, bizitzan zehar jasandakoa modu erosoan kontatzeko aukera eskaintzea. Partaideetako batzuk indarkeriaren kontzeptualizazioa ikuspuntu subjektibotik egin zuten:

“

- *Niretzat indarkeria emakumea erasotua eta kaltetua sentitzen den egoeretan gertatzen da.*

19 González Cases, 2011, 182. or.

Elkarrizketan zehar, **parte-hartzaileak bizitzan zehar jatorrizko familian bizi izan duten indarkeria fisikoaz, psikologikoaz eta sexualaz aritu ziren. Kasu batzuetan, oraindik ere, tratu txar horiek mantendu egiten dira.** Egintza gehienak emakumeek bizi duten desberdintasun estrukturalaren baitan kontzeptualizatu behar dira, familia rolen banaketa asimetrikoan, gizartean oro har eta botere-harremanetan oinarritzen dena. Egoerazko testuinguru honetan, patriarkaren aginduak ez obeditzea indarkeria egoerak sortzen ditu:



- *Nire aitak esaten didan guztia jarrera erasotzailean esaten dit, irainen bidez, ez dudala ezertarako balio esanez, eroa nagoela eta urdanga bat naizela leporatuz (...) Beti 30. hamarkadari begira dago, ulertzen? Beti dio: “garai bateko emakumea”, “garai bateko emakumea”.*
- *Nire aita matxista hutsa zenez, niri anaiaren gela egiteko esaten zidan, eta nik ezetz erantzuten nion, eta berak: “zuk egiteko”, eta nik esaten nion: “orain mutilek ere ohea egiten dute, eta berak: “ba zuk egin beharko duzu” eta makilarekin jotzen ninduen. Ez nuenez egiten, jo egiten ninduen.*

Horretaz gain, aitak amari eragindako hainbat indarkeria-gertaera kontatu zituzten, edota aitona gainerako familiartekoei eragindakoak. Bestalde, taldeetan parte-hartzen zuten emakumeek ere **bikotean bizitako indarkeria gertaera ugari kontatu zituzten, fisikoak, psikologikoak eta sexualak.** Kasu batzuetan, indarkeria egoera horiek, oraindik ere, mantentzen ziren. Bikote harremanetik kanpo jasandako sexu-erasoak ere aipatu zituzten, familiakoek, familiako lagunak edo gizon ezezagunak batek eragindakoak. Bikotean jasandako indarkeriaz aritu zirenean, kontrolaz eta isolamendu sozialaz hitz egin zuten (“ez bota parrandarik”, “ez zaitez horrekin atara”), indarkeria psikologiko emozionalaz (irainak, umiliazioak, batzuetan jendaurrean) eta baita indarkeria fisikoaz eta sexualaz ere; azken eraso mota horien inguruan adierazitakoa hurrenez hurren azalduko dugu:

## 4.1.2. Indarkeria fisikoa

**Buru gaixotasun larria duten emakumeei dagokionez, bitik batek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako eraso fisikoak sufritu ditu noizbait<sup>20</sup>.** Datu hori emakume guztiei zuzendutako 2015eko *Macroencuesta de violencia contra la mujer* inkestan ageri dena baino pixka bat altuagoa da. Makro-galdeketa horretan, bikoteak eragindako indarkeria fisikoaren ondorioz bizitza osorako biktima direnen kopurua %10,3koa da. Argi dago, beraz, buru gaixotasuna dutenek indarkeria mota hau jasateko arrisku handiagoa dutela. Hala ere, zuhurtasunez jokatu nahi dugu datuekin, ikerlan ezberdinen emaitzak erkatu baititugu.

Buru gaixotasuna duten emakumeekin egindako eztabaida-taldeetan, bikotekideak gaur egun eragindako eraso fisikoa kontatu zuen partaide batek, baita iraganen bizitako beste bat ere:



- *Ostikadak eta ukabilkadak ematen dizkit.*
- *Eta egoera norbaiti kontatzea erabaki duzu?*
- *Denok dakigu, inoiz guk geuk ikusi baitugu nola jotzen duen.*
- *Nire mutil ohia iritsi zen... gure harreman bukaeran jotzera iritsi zen.*

Nahiz eta kopuruari dagokionez ez izan hain esanguratsua, asko dira familiarteko indarkeria fisikoa jasan duten emakumeak, gehienetan aitaren edo amaren bikotekidearen aldetik edota familiako beste gizonezko baten aldetik izaten da. Hala dio 2015eko *Macroencuesta de violencia contra la mujer inkestak<sup>21</sup>*. Inkestak dioenez, emakumeen %6 inguruk etxebizitzan indarkeria fisikoa jasan du, eta bost aldiz bidertzen da zifra hori buru nahasmendua duten emakumeen kasuan. Hain zuzen, González Aguadoren ikerketak (2013) nabarmentzen du buru gaixotasuna familian

20 González Cases, 2011, 179.orr. González Aguado eta beste ikertzaileen ikerketa (2013) ondorio berera iritsi zen: buru nahasmendu larria duten eta bikotean egon diren emakumeen %52,6k indarkeria jasan du bikotekidearen esku.

21 [http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/Libro\\_22\\_Macroencuesta2015.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/Libro_22_Macroencuesta2015.pdf)

eragindako biolentzia fisiko tasa altuekin erlazionatzen dela: buru gaixotasun larria duten hiru emakumetik batek indarkeria jasan du etxebizitzan bere bizitzan zehar. Hala ere, ikerketak haurtzarora eta nerabezarora alde batera uzten ditu eta, ondorioz, indarkeriaren datua bizitza osoan zehar altuagoa da dudarik gabe. Hau da, biolentzia jasateko arriskua, bikotekideak eraginda nahiz familiarrean sortua, bost aldiz handiagoa da buru nahasmendu larria dagoenean.

Gure azterlanean parte hartu dutenek bizitako zenbait esperientzia kontatu dute:

“

- *Nire kasuan, anaia da gauez ni ere jotzen nauena eta ukabildak ematen dizkidana... eta ubeldurak uzten dizkit. (...) Lehengo egunean, herrira joan aurretik, labana jaurti zidan.*
- *Ni askotan jo nau (nire aitak). Nire ama behin jo zuen, eta ahoan ubeldura egin zion. (...) Ni gerrikoarekin jo nau.*

### 4.1.3. Indarkeria psikologikoa

Gai honi buruz dauden ikerlan guztietan, bikotean indarkeria psikologikoa ohikoena dela ageri da, bai emakume guztiei dagokienez bai buru gaixotasuna dutenei dagokienez. Indarkeria mota hori, aldi berean, beste tratatu txar batzuekin gertatu ohi da, edota era isolatuan. González Casesen arabera, eraso mota hori parte-hartzaileen %66,9k jasan du noizbait. Zentzu berean, González Aguadoren ikerketaren arabera, buru nahasmendu larria duten eta bikotekidea izan duten emakumeen %68,4k indarkeria psikologikoa jasan du. Biktimizazio mota hori, hain zuzen, buru gaixotasunekin oso lotua dago, Cristina Polo Usaola psikiatraren hitzetan:

“

- *Buru gaixotasuna duten emakumeek indarkeria mota konkreturen bat jasaten al dute bereziki?*
- *Biolentzia psikologikoa. Irainak, umilazioak: indarkeria-mota hori oso lotua dago buru nahasmendu larriarekin.*

Eztabaida-taldeetan emakumeek oso ohikoa dela aipatu zuten, eta izan ditzakeen ondorioak nabarmendu zituzten:

“

- *Indarkeria ez da fisikoa bakarrik. Indarkeria psikologikoak gehiago beldurtzen nau, jan egiten zaitu, egunero...*
- *Horrek jan egiten zaitu, bai.*
- *Gainera indarkeria fisikoa errazagoa da justifikatzen, medikuarengana bazoaz hark aztertu egiten zaitu eta (...) azterketa bat eman eta frogatu dezakezu. Atzamarkadak dituzu, baina psikologikoa bada beldurgarria da, askoz ere kaltegarriagoa, eta ezin duzu demostratu, okerragoa da eta iraingarriagoa.*

---

#### **Eztabaida-talde bateko elkarrizketa**

Ikerlan honetan, partaideek eremu psikologikoan jasan dituzten familiarreko indarkeria kasu larriak ere kontatu dituzte, González Aguadoren ikerketaren arabera, buru nahasmendu larria duten emakumeen %51,6ri eragiten dion fenomenoak:

“

- *Eta gainera mehatxatu egiten nau: “hemen nik agintzen dudala, kalera botako zaitudala”...*
- *Eta hori era indarkeria mota bat da, tratu txarra da...*
- *Indarkeria psikologikoa.*

#### 4.1.4. Indarkeria ekonomikoa

Horren inguruan dauden ikerlan gutxi batzuk diote, buru gaixotasuna duten emakumeen artean, indarkeria ekonomikoa oso esanguratsua izan daitekeela. Horrela, González Casesen ikerketan, hiru emakumetik batek ezin izan du dirua nahierara erabili bizitzako uneren batean, bikotekideak era sistematikoan eskubide hori mugatzeagatik. Emakume guztiei zuzenduriko 2015eko **Macroencuesta de violencia contra la mujer**<sup>22</sup> inkestari begiratzen badiogu, datu hori zertxobait altuagoa da. Informazio horren arabera, elkarrizketatutako %3,3k jasan du indarkeria ekonomikoa. Hala ere, gure ikerlanean parte hartu dutenek ez dute indarkeria mota hau islatzen duen istorio pertsonalik kontatu, baina egoera hori jasaten duten emakumeak ezagutzen dituztela onartu dute. Profesionalekin antolatutako eztabaida-taldeetan kasuren bat aipatu da:

- *Duela gutxi izan dugu horrelako kasu bat, mutil batek 20.000 euro atera dizkio neska bati elkarrekin ateratzeko, espezialista zen hura (...) Badaude emakumeen kontura bizitzeko halako harremanak bilatzen dituzten gizonak.*

#### 4.1.5. Indarkeria sexuala

Ikerketa honetan parte hartu duten profesional gehienek uste dute sexu-indarkeriaren eta buru gaixotasun larriaren artean lotura handia dagoela:

“

- *(Buru gaixotasunarekin) ezagutzen ditudan emakumeetatik kopuru altu batek noizbait abusu sexualak eta bortxaketak bizi izan ditu, buru gaixotasuna izan aurretik eta geroago.*

Horri buruzko Estatuan dagoen ikerketa zehatz bakarraren arabera<sup>23</sup>, buru gaixotasuna duten lau emakumetik batek baino gehiagok (%26) sexu-indarkeria jasan du haurtzaroan, emakumeek orokorrean batez beste jasandakoa baino askoz ere altuagoa. 2015eko **Macroencuesta de violencia contra la mujer inkestak** dioenez, hamabost urte bete aurretik indarkeria sexuala jasan duten emakumeen kopurua %3,5ekoa da. Adi ibili behar dugu datu horiek konparatzean, metodologia ezberdinak erabili dituzten ikerketen konparaketaren emaitza baitira. Gainera, azterlan batzuen artean lau urteko ezberdintasuna dago. Haatik, agerikoa dela dirudi buru gaixotasun larria duten emakumeek gainerakoek baino aukera gehiago izan dutela abusu sexualak jasateko. Beraz, kolektibo horrekin lan egiterakoan, bereziki garrantzitsua da haurtzaroan bizitako sexu-abusuak aztertzea. Buru gaixotasuna duten emakumez osaturiko eztabaida-taldeetan haurtzaroko sexu-indarkeria kasuak kontatu dira, familiako gizona baten aldetik, familiako lagun baten aldetik edo gizon ezezagun baten aldetik:

“

- *Txikia nintzenean. Nirekin sartzen zen ohean.*
- *Zurekin sartzen zen ohean, eta zer gertatzen zen?*
- *Hankartea ukitzen zidan, bere hankartearen kontra igurtzen ninduen, nik ez dut hau sekula kontatu, orain ari naiz esaten indartsu sentitzen naizelako.*
- *Tratamendu psikologikoa eta psikiatrikoa urte luzez jaso dut eta pila bat kostatu zait gertatutakoa aitortzea...beno aitortzea, terapeutari kontatzea nik*

22 [http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE\\_MACROENCUESTA\\_VIOLENCIA\\_CONTRA\\_LA\\_MUJER\\_2015\\_05-04-15.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE_MACROENCUESTA_VIOLENCIA_CONTRA_LA_MUJER_2015_05-04-15.pdf)

23 González Cases, 2011, 148. or.



*abusu sexualak jasan nituela ume bat nintzanean...8 urterekin.*

Biktinek ez zuten une hartan gertatutakoa kontatu, kasu batzuetan gerta zitekeenari beldur ziotelako; isiltasun horrek erasotzaileari zigortu gabe geratzeko aukera ematen dio:

“

- *Ezkatatu egin nuen, hau da, ez nion ezer esan inori gerta zitekeenari beldurra niolako, borrokatuko zirelakoan edo.*

Gainera, **sexu-indarkeria heldutasun garaian, bereziki bikotean, oso ohiko gertakaria da; bai emakumeen artean, oro har, bai buru gaixotasuna dutenen artean.** Hala ere, biktinek ez dituzte beti jokabide horiek abusuak bezala identifikatzen, gizartearen normalizatuak daudelako ohikoak direlako, hain zuzen. Hala dio indarkeria jasan duten emakumeekin taldean lan egiten duen profesional batek:

“

- *Begira, sexuaren gaiari dagokionez, abusua den ala ez, askotan galdetzen dute. Hau orduan abusua da edo ez da? Ez dakite identifikatzen. Eta taldean jarduteak, adibidez, pila bat laguntzen du, batez ere horrelakoetan: ba hori niri ere gertatu zait, beraz, indarkeria da...*

González Casesen ikerketen arabera, **gaixotasuna duten hiru emakumetatik batek bikotekideak eragindako sexu-indarkeria jasan du noizbait**<sup>24</sup>, eta González Aguadoren ikerketan (2013) %42,1ra igotzen da zifra. Portzentaje hori, zazpi aldiz handiagoa da eraso mota hau jasan duten gainontzeko emakumeekin

alderatuta<sup>25</sup> (%6,6<sup>26</sup>). Azken urtean jasandako indarkeria sexualaren inguruko datuak ere nabarmen altuagoak dira: buru nahasmendu larria duten eta bikotekidea izan duten emakumeen %10,5k jasan du biolentzia mota hori<sup>27</sup>, gainontzeko emakumeen %1,5k pairatu duen indarkeriaren aldean, Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 2015eko **Makroinkestaren** datuen arabera<sup>28</sup>.

Eztabaida-taldeetan parte hartu dutenen artean, badaude bikotekidearekin egin nahi ez zituzten egintzak egin zituztenak:

“

- *Niri gauza bera gertatu zitzaidan. Mutil batekin izan nuen harremana eta bera sexualki nitaz aprobetxatu zen nahierara.*
- *Zer esan nahi duzu?*
- *Ba nahi zuena egiten zuela nirekin. Ohean.*
- *Zuk ez zenituenak egin nahi. Egin nahi ez zenituen gauzak.*
- *Nik ez nuen nahi, baina onartu egiten nituen.*

Esanguratsua da baita ere, kuantitatiboki, emakume askoren aurkako sexu-indarkeria bikotekidea edo bikotekide ohia ez den pertsona batek eraginda gertatzea. Horrela, Espainiako emakume guztien %7,2k sexu-indarkeria jasan du noizbait<sup>29</sup>; %4,2k 15 urte bete eta gero sufritu zituzten gertaera mota horiek, eta %3,5ek 15 urte izan baino lehenago bizi zuten sexu-erasoren bat. Buru gaixotasuna duten emakumeen kasuan, nahiz eta ez izan indarkeria mota hori neurtzeko daturik, eztabaida-taldeetan gertaera horien inguruan hainbat istorio kontatu da, bai profesionalen aldetik bai parte-hartzen zuten emakumeen partetik ere:

24 González Cases, 2011, 180. or.

25 Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 2015eko makroinkesta. 33 orrialdea

26 Ikerketa ezberdinetatik datozten datuen konparaketa arduraz egin behar da.

27 González Aguado et al. (2013).

28 44 orrialdea. Azken urtean euren bikotearen edo bikote-ohiaren esku indarkeria sexuala bizi izan duten emakumeak identifikatzen dira.

29 Estatuan, 16 urte edo gehiago duten emakumeen %1,4k bortxaketa jasan dute. Bortxatzailea biktimaren ezaguna zen ia kasu gehienetan, %80; eta beste batzuetan, berriz, familiakoa zen, %25. 2015eko 'Macroencuesta de violencia contra la mujer' inkestaren arabera.

“

- *Niri gauza bera gertatu zitzaidan. Ni etxe batean nengoen, marra batzuk eskaini zizkidaten eta, gau horretan gertatutakoaz gogoratzen ez naizen arren, badakit hirurek bortxatu egin nindutela, guztiz.*

---

#### **Buru gaixotasuna duen emakumea, eztabaida-taldean**

“

- *Ikusi ditudan sexu-abusu kasu larrietan, exekutiboak atzeratasuna, eskizofrenia nabarmena eta maitasun falta handia sufritzen duten jendearen bila dator mendira eraman eta haiekin harreman sexualak izateko. Nik ez dut ikusten...era boluntarioan doa baina ez dut uste benetan zertan ari den dakienik.*

---

#### **Profesional bat eztabaida-taldean**

Bere doktorego tesian, González Casesek ohartarazi du, buru gaixotasuna larriagoa denean, sexu-indarkeriaren intzidentzia areagotu egiten dela. Horrekin ere bat datoz ikerketan parte hartu duten profesionalak; bereziki, aldi berean, urrakortasuna areagotu egiten duen beste jazoera batzuk gertatzen direnean, baliabide falta edo toxikomania, esaterako:

“

- *Buru gaixotasuna duen emakumeak, pobrea bada eta ez badu baliabiderik, abusu sexualak jasateko arrisku handiagoa du, ezta*
- *Nik ere badakit.*

- *Hemos tenido también un caso de agresiones sexuales con temas laborales. De hombres que (...) se dedican a ofrecer puestos de trabajo a chicas, a mujeres, y mira, te voy a llevar no sé dónde, a Laredo, me parece que era, para hacerte una entrevista y tal,*

*y por el camino violarle. Con una discapacidad o una enfermedad.*

Ikerketa honetan parte hartu dutenen emakumeen artean, interesgarria da azpimarratzea sexu-indarkeria ohikotasunaren gainean dagoen kontzientzia altua:

“

- *Zuek uste duzue... askok sexu-abusuak jasan dituzuela kontatu duzue. Uste duzue hau oso ohikoa dela emakumeen artean?*
- *(Denak) Bai, bai.*
- *Uste baino gehiago.*
- *Esaten dena baino askoz ere gehiago.*

Profesionalen arteko eztabaida-taldeetan aipatu den beste kontu bat izan da, instituzionalizatutako emakumeei eragindako abusu sexualen maiztasuna altua dela. Oro har, desgaitasuna duten emakumeekin zerkusua duen auzi hori urteak dira salatzen dela:

“

- *Hemen inguruko ospitale batean, ez dizuet zein den esan nahi, neskak komunean sartzen saiatzen dira bortxatzeko (...)*
- *Ospitaleratua izan dudan jendeak gero kontsultan aitortu dit felazioak egitera behartuta ikusi dutela euren burua, ospitale psikiatrikoko kideren bati (...) Indarkeria gisa bizitako gertakariak dira, haiek horrela sentitu dute.*

### **4.1.6. Indarkeriaren ondorioak biktimentzat**

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek badakite indarkeriak eragiten dituen ondorioak kaltegarriak direla eta buru gaixotasunaren bilakabidean ere ondorioak dituela. Cristina Polo Usaola psikiatraren iritziz, emakumeak aldeztu aurretik zuen buru nahasmenduaren sintomatologia okerragotzen du indarkeriak, “gehiago

nahasten duelako, eta errudun sentimendua eta porrot sentimendua areagotzen dituelako". Gainera, iraganean biolentzia jasan izanak buru nahasmendua eragin dezake:



- *Patologia batzuen kasuan argi dago. Adibidez, nortasunaren nahasmenduetan gero eta ebidentzia handiagoa dago haurtzaroko traumekin, era guztietako abusuekin edo gabeziekin duen lotura. Afektibitate-nahasmenduetan, batez ere depresiboetan, lotura ere nabaria da. Beste nahasmenduetan ere badago ikerketarik, baina agian lotura ahulagoa da. Hala ere, patologia batzuetan erlazioa garbia da: haurtzaroko gertakari traumatikoak eta abusuak arrisku-faktoreak dira.*

Kasu batzuetan, ikerketan parte hartu duten emakumeek galdetu dute ea jasandako erasoek ez ote duten sufritzen duten buru gaixotasuna eragin:



- *Nik beti galdetzen dut: eskizofrenia izatearen arrazoia hori izan al daiteke? Psikiatrak esan zizkidan gauzak dira horiek, adibidez, emakume askok sexu-abusuak jasan dituztela eta ez dutela buru gaixotasunik...*
- *Baina beste batzuei bai, niri esan zidaten gizonekin bizitakoak harremana izan zezakeela nire buru gaixotasunarekin".*

#### **Eztabaida-talde bateko elkarrizketa**

Eta beste kasu batzuetan, jasandako erasoaren eta ondoeza psikologikoaren arteko lotura egiten dute, eta horrek zenbait kasutan gaixotasuna okerrera egitea ekarri du:



- *Eta gero bera etxera iristen zenean, berriro ere, ni suntsitu nahian, ni suntsitzeko, medikazioa lau aldiz igo behar izan didate.*

- *Geroztik, psikologikoki jota utzi ninduen, trapu zahar baten antzera sentitu nintzen eta orain ez naiz inorekin fidatzen eta ez dut gizonekin inolako harremanik izan nahi (...) Ni jota utzi ninduen. Indarkeria psikologikoak sexu-erasoak baino gehiago kaltetu ninduen.*

Psikologian eta psikiatrian adituak diren beste profesional batzuen iritziz, indarkeriaren eta buru gaixotasunaren artean lotura dago. Adituek diotenez, batzuetan, **erasoren bat jasan izanak buru gaixotasuna izateko garaian eragina du, erabakigarria ez den arren**, nabarmena baita indarkeriaren biktima askok ez dutela psikopatologiarik garatzen:



- *Nik badut kasuren bat. Badago emakume bat anaiak eragindako abusu sexualak eta aitaren tratu txarrak jasan dituena, eta baita amarena, mota guztietako tratu txarrak. Ospitaleratze-txostenak ere baditu, eta heldu garaian indarkeria jasan du, nik abusuen ondorioz sortutako kasu gehiago ditut.*
- *Edozelan ere, hainbat nahasmenduren literaturan ageri da haurtzaroan abusu sexualak jasan izana dela arrazoietakoa bat (...)*
- *Badaude oso kasu argiak, buru gaixotasuna haurtzaroan bizitakoagatik duten pertsonak (...) Agian beste batzuetan, sendotasun handiagoa izateagatik edo, emakume askok sexu-abusuak jasan dituzte haurtzaroan eta gero ez dute buru gaixotasunik.*
- *Batez ere, babestu behar zaituenak ez zaituelako babesten. Nik argi ikusten dut.*

### **4.1.7. Biktinek bizi duten errua eta lotsa**

Tradizionalki, gizarteak indarkeria jasan duten emakumeak errudun sentiarazi ditu egoera hori sufritzeagatik. Ondorioz, emakume askok egoera mota horiek nolabait haiek eragin izanagatik jasan dituztela barneratu dute. Aipatutakoa eta biktinek, tradizionalki, izan duten estigma soziala oztupo dira, hein handi batean, bizitako egoera norbaiti kontatzea erabakitze

edo salatzeko. Horrela, Estatuan bikotekideak eragindako indarkeria jasan duten emakumeen %30ak errua sentitu dute, eta %40 inguruk lotsa sentitu du<sup>30</sup>.

Hauek dira, hain zuzen, ez salatzeko emakume askok erabiltzen dituzten argudioak kasu askotan, makro-inkestan elkarrizketatutako emakumeek onartu bezala. Nahiz eta gai honen inguruko daturik ez izan buru gaixotasuna duten emakumeei dagokienez, ikerketaren baitan egin diren eztabaida-taldeetan sentimendu hauek azaleratu dituzte partaideek:

“

- *Erruak egiten duen ikaragarria da, ezta? Izugarria da. Errudun sentitzen gara nahiz eta biktimak garela jakin.*
- *Nik psikologoari errua nirea zela esaten nion, nire errua aurre egin ez izanagatik zen.*

Oraindik ere bikotekideak eragindako indarkeria jasaten jarraitzen duen emakume baten kasuan, egoeratik ateratzea galarazten diona harremanaren hausturak eragin ditzakeen ondorioei eta erruari dion beldurra dela dio:

“

- *Zein uste duzu izan daitekeela aukera edo soluzioa?*
- *Ba berarekin egon, uzten badut eta zerbait egiten badu, edo nik ere egiten badut, bai bera bai ni errudun sentituko gara.*

Profesionalen aburuz, errua eta lotsa sentimendu iraunkorrak dira biktimen artean. Beraiekin lan egitea beharrezkoa da lagundu ahal izateko eta ulertarazteko jasan duten indarkeriaren arrazoia gizarte matxista batean bizi diren emakumeak direla da, eta ez euren ezaugarri pertsonalak:

“

- *Gizarte matxista baten testuinguruaren barruan ulertu behar da. Orduan errua, haiek errudun sentitzen dira. Kontrako bi sentimendu dituzte, badakite erasotu zituztela, baina eraso pertsonalki direnak izateagatik izan zen, ez beste arrazoi batengatik. Zaila da emakumeak ikuspuntu horretatik aritzea: niri emakume izateagatik erasotu ninduten, ez zigorra mereziteagatik, hori da topatzen duzuna.*
- *Oso zaila da ateratzea, egoera horretan harrapatuta zaude. Gainera, hor egoteagatik errudun sentitzen dira (...) Lotsa ematen die.*
- *Bai, nolabait parte hartu izanagatik errudun sentitzen dira. Emakumeen kasuan, gorputza arrisku handiagoan dago eta haurrak garenetik arrisku hori kontrolatzeko ardura gurea dela irakasten digute.*

Cristina Polo Usaola psikiatraren iritziz, buru gaixotasuna duten emakumeek gainontzekoek baino errudun sentimendu handiagoa dute, nahasmenduak berak eragiten duen sintomatologiaren ondorioz, baita indarkeria normalizat hartzeraren eramatzen dituen erasotzailearen diskurtsoak eraginda ere. Hori dela eta, biktimak aurrera egiteko ezinbestekoa da indarkeria-egoeraz ohartzen lagunduko dion profesional baten laguntza aurkitzea, gaixotasunaren garapena hobea izaten ere lagunduko dion pertsona batena, hain zuzen:

“

- *Askotan, abusuzko egoeraren biktimak izatearen atzetik errudun sentimendua dago, eta askotan buru gaixotasun larria duten emakumeen kasuan sentimendu hori handiagoa da: “Ni gaizki nagoenez, gaixo nagoenez, oso mantsoa naizenez, horrela jartzen naizenez, kontrola galtzen dudanez, normala da bera haserretzea, niri oihu egitea eta bultzatzea”. Orduan, berekin harreman ona izango duen profesionala aurkitzea, bizi duena bidezkoa ez dela esango diona, buru gaixotasuna izan arren ezin direla*

*inondik inora justifikatu bere aurkako oihuak, irainak, bultzadak eta abar. Horrek efektu terapeutikoa du berez.*

#### 4.1.8. Zerbitzuetan egiten den esku-hartzeari buruzko pertzepzioa

Aipatu dugun bezala, ikerketa honetan parte-hartzen ari diren emakumeen artean, badira egun indarkeria bizi dutenak. Orain arte ez dute egoera horretatik ateratzeko laguntzarik jaso, nahiz eta artatzen dituzten zerbitzu publikoetako eta elkarteetako hainbat langileri bizitzen ari direna kontatu. Kasu batzuetan urteak dira gertatzen dela, eta, momentuz, ez diete irtenbide egokirik eman:



- *Eta irtenbideren bat eman da,edo gaia jorratu da? Nola moldatu dira?*
- *Nik esan diot (artatzen duen profesional bati) eta esan dit nire ahizpei esateko, eta nik ahizpei kontatu diet.*
- *Zuk hori norbaiti kontatu diozu?*
- *Bai, psikiatrari, profesionalen bati, guztiei...denek dakite nire bizitzari buruz.*

Ustezko kasu batean, salaketa polizialak eta epaiketa bidezko zigorra gertatu dira, baina biktimak erasotzailearekin bizitzen jarraitzen du, biktimak ez baitu baliabide ekonomikorik modu independentean bizitzeko:



- *Ni etxetik joango nintzateke baina, ez dut pisurik; beraz, azkenik ez duen istorioa da.*

Kasuren batean, biktimek hautematen dute, erasotzaileak indarkeria eremu pribatuan eragitea, gertatzen ari dena frogatzeko oztopo dela.

Ikerketa honen bidez ikusi da, adierazten ari garen moduan, buru nahasmendu larria duten eta indarkeria jasaten ari diren emakume askok ez dutela zerbitzu publikoetan arreta egokia jasotzen. Landa-lanean parte hartu duten indarkeria-arloko arduradun eta teknikari ugarik Osakidetzaren konpromiso falta nabarmendu dute emakumeen aurkako bortxakeriaren gaiaren inguruan eta, bereziki, buru nahasmendua dutenen kasuan. Profesional horiek genero-ikuspegia erakunde osoan zabaltzearen beharra azpimarratzen dute, teorikoki ikuspuntu hori **Lerro estrategikoak eta ekintza-planak. Osakidetza, 2013-2016**<sup>31</sup> planaren barne badago ere. Dokumentu horren helburuen artean dago, hain zuzen, genero-ikuspegia integratzea<sup>32</sup>.

Integrazio hori bereziki garrantzitsua da psikiatrian, emakumeen aurkako indarkeriaren eta buru gaixotasunaren arteko harremana estua baita. Problematika horren barruan, biziki garrantzitsua da nahasmendu larria duten eta indarkeria-egoeran dauden emakumeei erantzun egokia ematea arreta normaletik kanpo:



- *ESletan (beste instituzioetako gizarte-zerbitzuekin era koordinatuan lan egiten duten Erakunde Sanitario Integratuak) eta batzorde soziosanitarioen barnean sartu beharreko gaia da: arreta sozio-sanitarioari nola heldu indarkeria matxista eta osasun behar garrantzitsuak daudenean.*

#### 4.1.9. Baliabide publikoen ezagutza eta sarbidea

Oro har, egindako kanpo-lanaren bidez, egiaztatu da ikerketan parte hartutako buru gaixotasuna duten emakumeek ez dituztela ia ezagutzen dauden baliabide publikoak. Ez dute 016 edo 900 840 111 telefonoa

31 <http://www.bioef.org/wp-content/uploads/2016/04/Lineas-Estrategicas-Osakidetza-2013-2016.pdf>

32 1 – 1 Helburua: "Pertsonen eta herritarren osasuna babestea unibertsaltasunaren, elkartasunaren, ekitatearen eta kalitatearen printzipioen arabera, generoaren eta gizarte-egoera ahulenean daudenen ikuspegian eraginez". Honen barnean, 1.1.4. ekintzak proposatzen du "Desberdintasuna eta genero-indarkeria saihesteko ekintzak sustatzea", eta 1.1.7. ekintzak "HIESA duten gaixok eta gaixotasun psikiatrikoak dituztenek jasaten dituzten estigma, bereizkeria eta desberdintasunak murriztea".

ezagutzen, ezta bere ezaugarriak ere. Gainera, ez dute pertsona zehatzik jasaten ari diren indarkeriaz aritzeko. Horretaz gain, ez dute inoiz indarkerian espezializatutako arreta psikologikorik eskatu, eta ez dute baliabide publikoko beste laguntza motarik jaso.

Momentu hauetan, foru aldundiek eta hainbat udalek indarkeria jasan duten emakumeei arreta psikologikoa eskaintzen diete –kasu gehienetan Zutituren bitartez eskaintzen dira-, baina baliabide horiek ez daude buru nahasmendu larria duten emakumeen beharretara egokituak, psikiatren laguntzarik ez baitute jasotzen bertan. Indarkeria-arloko arduradunekin eta teknikariek osatutako eztabaida-taldean, indarkerian espezializatutako arreta psikologikoa zerbitzu sozialek eskaintzen dutela argudiatu zen, Osasun Sailaren ardura izan arren:

“

- *Arreta psikologikoa dugu (...) prestazio sanitario gisa. Eta Osasun Sailak esaten du orduan: “Nire eremuan sartzen ari dira, hori guk egiten dugu”. Baina ez da egia, beraiek ez dute egiten. Orduan aukera ezberdinak daude: egiteari uzten diogu. Osasun Saila da erantzule. Osasun Sailak esaten du: “arreta-saio bat 15 eguneko, edo hiru asteko, eta listo”. Ezin dugu hori egin, ezin ditugu emakumeak era horretan baztertu. Ordun guk, egin behar dugun arreta psikosoziala egin orde, gure eginbarra berez, Osasun Sailak egiten ez duen eta egiten ez duela onartzen ez duen arreta klinikoa ematen dugu.*

## 4.2. ARRISKU ETA BABES

### FAKTOREAK

### INDARKERIAREN AURREAN

Esan dugun bezala, ikerketa kuantitatiboek erakusten dute **buru nahasmendu larria izatea arrisku faktorea dela** edozein indarkeriaren biktima izateko. Ikerlanean parte hartu dutenen profesional gehienek iritzi horrekin bat datoz, eta urrakortasuna areagotu dezaketen faktoreen artean hauexek aipatu dituzte: euren burua defendatzeko baliabiderik ez izatea, autonomia falta eta beste pertsonetikiko menpekotasuna izatea. Egoera zailtzen du ere autoestimua gutxi edota bikotekidea

edukitzeko zailtasunak izatea, horrek harreman desegoki gehiago izatera eraman baitezake. Gainera, arrazoi sozialak eta estrukturalak ere badira: pertsona horren istorioaren sinesgarritasun eskasa, enplegu eta baliabide ekonomikoen gabezia edota baliabide publikoen desegokitasuna biktimaren beharrei dagokienez. Ildo horretan, azterlan honen ondorioak egiaztatu dituen Margarita Sáenz Herrero psikiatrak faktore sozialak bereziki eragiten dutela dio:

“

- *Bakardadeak, isolamenduak, buru gaixotasun larria izateagatik bizi den estigma berak eragina dute eta arriskua areagotzen dute. Gizarteak isolatu egiten ditu, lanetik botatzen dituzte. Nik ikusi izan ditut ospitalizatuta zeuden pazienteei kitapena ematera joan direnak (...) Urritasun soziala eta ekonomikoa sortzen da. Isolamendu soziala larriagoa da emakumeengan, gizarteratze eta parte-hartze soziala eskasagoa izateagatik.*

Bestalde, Cristina Polo psikiatrak buru gaixotasuna duten pertsonak izan ohi duten autoestimua baxua azpimarratzen du, euren indarkeria-egoera normaltzat hartzera eraman diezaieken egoera:

“

- *Orokorrean, buru nahasmendua duen pertsonak autoestimua baxuagoa du. Bizitzari aurre egiteko gaitasun gutxiarekin ikusten du bere burua eta inguruko laguntza handiagoa jasotzeko beharrezkin. Autonomia gutxiago duenaren sentsazioa du. Abusuzko harremanak identifikatzen zailtasun handiagoak ditu, abusuzko harremanak errazago justifikatzen ditu bera inplikatu dagoenean, berak gutxi balio duela pentsatzen baitu: “Hain baldarra naiz normala dela nirekin haserretzea eta ni zigortzea.*

Sin embargo, es evidente que no todas las mujeres con una enfermedad mental sufren situaciones de violencia graves, por lo que resulta tan interesante analizar cuáles son los factores que incrementan la vulnerabilidad como estudiar aquellos que, por el contrario, protegen de la violencia. Entre estos últimos, está demostrado que **el hecho de tener una red y apoyo social disminuye el**

**riesgo de sufrir violencia por parte de la pareja**, tanto en mujeres en general como en aquellas que presentan una enfermedad mental, según se corrobora también en el estudio *Violencia en la pareja hacia mujeres con trastorno mental grave*<sup>33</sup>. Esta constatación es coherente con el hecho de que el maltratador procura habitualmente aislar a la víctima y separarla de su red familiar y social, con el propósito de incrementar su control sobre ella, uno de los elementos comunes a las situaciones de violencia. En nuestro estudio, también se ha evidenciado la relación inversa entre maltrato y participación social:

“

- *Depende de las redes de apoyo que tenga. Igual el mismo caso, que tenga una familia, que tenga un soporte, igual hace que con el mismo...*
- *Y también el aislamiento, para mí. No es lo mismo estar sola, aislada (...)*
- *Al final ese aislamiento es lo que te hace engancharte al maltratador. Entonces para mí una clave es el aislamiento, es clave.*

Por tanto, **debe huirse de la idea de que existe una relación lineal entre enfermedad mental y violencia, porque hay otros muchos factores que entran en liza que pueden resultar protectores:**

“

- *Mirar un poco los rasgos y cómo interseccionan. Una mujer con discapacidad, con enfermedad, y luego si tiene apoyo familiar, viendo un poco eso sí podemos ver qué riesgos hay, qué riesgos no hay.*

Un aspecto clave para disminuir el riesgo es combatir las situaciones de pobreza:

“

- *Si eres mujer, trastorno mental y pobreza tienes todos los lotes para todo, para más cosas, y vuelvo a insistir, el 80% de nuestro colectivo está cobrando pensiones no contributivas.*

Por su parte, la psiquiatra Cristina Polo Usaola considera que incorporar la perspectiva de género en la intervención puede prevenir el riesgo de sufrir violencia:

“

- *Yo creo que incorporar dentro del plan de intervención, como un elemento terapéutico más con esas mujeres, cuestiones que tienen que ver con el género: incorporar el autocuidado, la necesidad de poner límites a situaciones abusivas, todo lo que tiene que ver con esa reivindicación de derechos que normalmente no se incorpora. Si trabajamos desde una perspectiva de género en el plan de intervención global con estas mujeres, eso va a llevar asociado un elemento preventivo.*

Entre los factores de riesgo, la mayoría de las investigaciones coinciden en señalar que, en general, el hecho de haber sufrido violencia en el ámbito familiar incrementa las posibilidades de vivir este tipo de situaciones en la edad adulta<sup>34</sup>. Según el estudio de González Cases, **una de cada tres mujeres con enfermedad mental ha sufrido abusos físicos en la infancia**<sup>35</sup>. También constituye un factor de riesgo el haber sido testigo de la violencia que ejerce el padre sobre la madre, aun cuando no se haya sido agredida personalmente. Según los datos de la Macroencuesta de 2015, en dos de cada tres casos en los que existe violencia en la pareja las hijas e hijos menores presencian estas escenas, algo que se ha relatado también por parte de una de las participantes en los grupos de discusión realizados con mujeres con enfermedad mental:



- *Abrir la puerta de la habitación cuando yo ya sentía que estaba golpeando algo, y yo era una niña, ¿eh? no sé si tendría 11 años, ó 12, y abrir la puerta y decirle: “No la toques”.*

Precisamente, la vinculación existente entre violencia en la infancia y en la edad adulta queda corroborada en la tesis de González Cases<sup>36</sup>: entre las mujeres con enfermedad mental grave, aquellas que han sufrido abuso físico en la infancia tienen un riesgo 2,22 veces superior de ser víctimas de violencia por parte de su pareja. Sin embargo, esta relación no es, ni mucho menos, determinante, de manera que la constatación de un riesgo superior debería servir para proporcionar un mayor apoyo a estas mujeres, con el fin de incrementar su nivel de empoderamiento. Por tanto, **es preciso conocer, con el fin de proporcionar una atención adecuada, sobre todo psicológica, los casos en que las mujeres atendidas en los diferentes recursos han sido víctimas de abusos en la infancia.** Sin embargo, en nuestros grupos de discusión con mujeres hemos encontrado casos en que este tipo de agresiones bien no se habían verbalizado nunca o bien se habían narrado por primera vez muchos años después de estar en tratamiento psiquiátrico, como hemos expuesto más arriba.

Además, debe recordarse que cuanto mayor es el tiempo que se permanece en una relación en la que hay violencia, más grave es el daño y resulta más complicado salir de ella.

#### 4.2.1. Momentos de incremento del riesgo

El 49,5% de las mujeres participantes en el estudio

de González Cases que han sufrido violencia alguna vez en su vida refiere que las agresiones solían coincidir con momentos de descompensación o crisis en su enfermedad psiquiátrica, un porcentaje que se eleva hasta el 58,3% si se considera a aquellas que han sido víctimas en el último año. Esta proporción alcanza prácticamente a la totalidad de las mujeres si se analizan exclusivamente los últimos seis meses<sup>37</sup>. En suma, el estudio demuestra que las mujeres en peor estado psiquiátrico presentan tasas más altas de violencia, hasta el punto de que casi una de cada dos mujeres (45,7%) que han presentado un estado psiquiátrico inestable en el último año han sido víctimas de violencia, frente al 25,5% entre las que estuvieron estables. Por tanto, debe tenerse presente que **existe un significativo incremento del riesgo de violencia cuando se produce un empeoramiento de la sintomatología de la enfermedad mental.**

Esta percepción es compartida por Cristina Polo, que señala también el embarazo como un momento en que se maximiza el riesgo:



- *¿Habría algún momento de especial riesgo en el curso de una enfermedad mental?*
- *Sí, cuando empeora la sintomatología. En el trabajo de Juan González creo que también lo asociaba: mayor riesgo en las épocas de más descompensación psicopatológica. Efectivamente, el empeoramiento es un momento de especial vulnerabilidad. Y luego hay otro momento de especial vulnerabilidad en mujeres con enfermedad mental, que es el embarazo.*

#### 4.2.2. Trastornos que provocan un mayor riesgo

Entre los diferentes diagnósticos, **son las mujeres con trastorno de la personalidad quienes presentan un mayor riesgo frente a otros.** Así, casi el 55% de las mujeres con este diagnóstico que participaron en el estudio de González Cases habían sufrido violencia

33 González Cases, 2011, pág. 145.



en el último año por parte de su pareja o expareja, mientras que en el resto de las enfermedades mentales el porcentaje rondaba el 25%. Para las psicólogas y psiquiatras que han participado en nuestro estudio, son también los trastornos de la personalidad, junto con las drogadicciones, los que generan un mayor riesgo:

“

- *Las mujeres adictas son un colectivo especialmente vulnerable en este tema. Y los trastornos de personalidad.*
- *Los trastornos de personalidad (...) son carne de cañón en las relaciones disfuncionales de parejas no adecuadas.*

En la misma línea se manifiesta la psiquiatra Cristina Polo, que incluye también entre los diagnósticos que

generan un mayor riesgo la esquizofrenia y, en algunas ocasiones, las fases maníacas en un trastorno bipolar:

“

